

**EUOPAR BATASUN EKO JUSTIZIA AUZITEGIAREN
JURISPRUDENTZIA HIZKUNTZA GAIETAN**

Jose Mari Segurola Amutxastegi

Gasteiz, 2007ko uztaila

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. EUROPAR BATASUNeko HIZKUNTZA ERAENTZA
 - 2.1 Tratatu hizkuntzak, hizkuntza ofizialak, lan hizkuntzak
 - 2.2 Indarrean dagoen legeria
 - 2.3 Erakunde eta organismoen hizkuntza arautegiak
 - 2.4 Hizkuntza eskubideen egoera Europar Batasunean

3. JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIEN AZTERKETA
 - 3.1 Etiketak eta patenteak
 - 3.1.1 Patenteak
 - 3.1.2 Etiketak
 - 3.2 Hizkuntza eskakizunak
 - 3.2.1 Irakaskuntzan
 - 3.2.2 Osasun zerbitzuetan
 - 3.2.3 Lanbide elkargoetan
 - 3.2.4 Finantza erakundeetan
 - 3.3 Auzibideak

4. ONDORIOAK

5. BIBLIOGRAFIA

1. SARRERA

Lan honen asmoa Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EBJA) hizkuntzarekin lotutako gaietan eman duen jurisprudentzia aztertzea da. Izan dira lehen ere helburu berarekin argitaratu diren lanak (Agirreazkuenaga eta Iriondo, 1994; Iriondo, 2000), baina bi azterlan horietan Auzitegiak hasieran emandako epai batzuk bakarrik ageri dira.

Beraz, lan honen helburua da EBJAk orain arte eman dituen epai guztiak, banaka eta multzoka, analizatzea, jurisprudentzia horrek eman duenez eta eman dezakeenez ongi jabetzeko, eta euskararen kasuari begira baliagarri izan daitekeen biderik edo aukerarik dagoen ikusteko.

Epaien banakako azterketari ekin aurretik ezinbestekoa da hizkuntza gaietan Europar Batasunean indarrean dauden lege eta arauen aurkezpena egitea. Horri eskaini diogu 2. atala, nahiz eta gerora garbi geratuko den hizkuntzei buruzko arau esplizituek EBJAren jardunean duten eragin mugatua.

3. atalean egiten da epaien azterketa xehatua. Hori egin aurretik, multzoka bildu dira epaiak, argitu nahi duten gaiaren aldetik eta aplikatzen duten araudiaren ikuspuntutik desberdinak direlako. Aplikatzen dituzten arauak eta printzipioak oso jatorri desberdinetakoak direnez, emaitzak ere askotan koherentziarik gabeak dira, gero ikusiko dugunez.

Azterketa honetatik ateratako ondorioak, batzuk tamalgarriak dira gurearen egoeran dauden hizkuntzentzat, baina beste batzuk baliagarriak izan daitezke. Ondorio horiek, laburturik, 4. atalean ematen dira, beti ere euskararen alde erabil daitezkeen zirrikituen ikuspegitik.

2. EUROPAR BATASUNEN HIZKUNTZA ERAENTZA

Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren azterketari ekin aurretik komenigarria da, auzitegi horren eragina esparru zabalagoan kokatu nahi badugu, Europar Batasunean hizkuntza gaietan egun indarrean dagoen lege esparru orokorra ezagutzea, erreferentzia zabal hori gabe nekez ulertuko baitugu auzitegiaren epaien zentzua eta garrantzia.

Atal honetan, beraz, Europar Batasuneko lege-esparrua aztertuko da, eta alde batera utziko dira ezinbestean Europako Kontseiluaren ekimenak eta erabakiak, horien artean aipagarriena Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna. EBko Justizia Auzitegiaren epaiak ditugu aztergai, eta puntu horretan EBko legeria da munta duen bakarra.

Eva Pons-ek, *El catalá a Europa* lanean (Pons, 2007: 32), Europar Batasunaren hizkuntza politika esplizitua eta inplizitua bereizten ditu. Ageriko hizkuntza politikan hiru osagai nabarmentzen ditu: erkidegoen arauak (tratatuetan eta bigarren mailako zuzenbide eratorria) argitaratzeko jarraibideak, Europar Batasuneko erakunde eta organoen hizkuntza eraentza, eta Europako hizkuntzak irakasteko, zabaltzeko eta sustatzeko politika.

Adierazi gabeko hizkuntza politika inplizituan ere beste hiru osagarri bereizten ditu: erkidegoak oso sektore desberdinentzat eratu duen zuzenbide eratorriak estatu kideen kultur eta hizkuntza interesetan duen eragina, Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia, eta estatu hizkuntza ez diren europar hizkuntzen bazterketa EBko erakundeetan.

Lan honen helburua politika inplizitu horretako atal bat aztertzea da, baina horretan hasi aurretik ezinbestekoa da ageriko hizkuntza politikaren berri ematea, eta tratatu hizkuntza, hizkuntza ofizial edo lan hizkuntza bezalako kontzeptuek Europar Batasunean duten esanahia eta irismena argitzea.

2.1 Tratatu hizkuntzak, hizkuntza ofizialak, lan hizkuntzak

Tratatu hizkuntza terminoa erabiltzen denean EBren eraketa tratatuen bertsio fede-emaileak idazteko erabili diren hizkuntzez ari garela ulertu behar da, hau da, interpretazio arazoren bat sortuz gero benetako bertsioak zein diren erabakitzeke kontuan har daitezkeen hizkuntzak. Orain indarrean dagoen Tratatuaren 314. artikulua hasierako paragrafoan sorrerako estatuen

hizkuntzak aipatzen ditu (alemana, frantsesa, italiara eta nederlandera) eta gero atxikimendu tratatuen ondorioz onartu diren beste guztiak. 2007an Errumania eta Bulgaria EBn sartu ondoren 23 dira tratatu hizkuntzak: alemana, bulgariera, daniera, errumaniera, eslovakiera, esloveniera, espainiera, estoniera, frantsesa, greziera, hungariera, ingelesa, irlandera, italiara, letoniera, lituaniera, maltera, nederlandera, poloniera, portugesa, suediera, suomiera eta txekiera. Euskara edo katalana bezalako hizkuntzetara egindako itzulpenek ez dute “benetako” izaera hori izango.

Nolanahi ere, ezin ukatuzkoa da 23 hizkuntzek balio fede-emaile bera izateak baduela bere fikzio puntua. Ez dira asko munduan legeak aldi berean bi hizkuntzatan idazteko esperientziak; Kanadako da agian nabarmenena, legeak ingelesez eta frantsesez bietan batera idazteko ohitura nahiko finkatuta baitago. Gainerako kasuetan ia ezinbestekoa da hizkuntza batean sortzea eta besteetara itzultzea, zer esanik ez hizkuntza kopurua horren handia denean. Beraz, balio juridiko bera, benetako testu izaera bera, emateak zerikusi handiagoa du berdintasun printzipioari eusteko erabaki politikoarekin benetako praktikarekin baino.

Definizioz *hizkuntza ofizial* edo *lan hizkuntza* kontzeptuek *tratatu hizkuntzarekin* ezinbesteko loturarik ez duten arren, praktikan berdindu egiten dira, EBko hizkuntza ofizialak tratatu hizkuntzak baitira. Parekatze horren oinarrian 1952an kanpo arazoetako ministroek hartutako erabaki bat dago, gerora hain garrantzitsua bihurtu den 1/1958 Arautegiak berretsia: estatu hizkuntzen berdintasun juridikoaren printzipioa. Berdintasunaren printzipioa hasiera-hasieratik, hizkuntza ofizialak lau besterik ez ziren garaitik, dago indarrean. Garai hartan berritasuna ekarri zuen estatuaz gaindiko erakundeen panoramara, ordura arteko denek (NBE, NATO, OSCE...) hizkuntza kopuru mugatua erabiltzen baitzuten, frantsesa eta ingelesa beti, eta zenbait kasutan baita beste bat edo beste gutxi batzuk ere.

Hala ere, parekatze horrek izan du salbuespenik: Irlandako gaelikoa, tratatu hizkuntza den arren, ez da hizkuntza ofiziala izan orain dela gutxira arte, Irlandako Errepublikak EBn sartzerakoan uko egin baitzion eskubide horri. Pixkanaka, ordea, ofizialtasun gune batzuk irabazten joan da (Erkidegoen Aldizkari Ofizialaren bertsioa, Justizia Auzitegian prozedura hizkuntza gisa onartzea, *Lingua* bezalako sustapen programetan sartzea...), nolabaiteko erdi-ofizialtasun estatus bat irabaziz, eta azkenean 2005an kanpo arazoetako ministroen kontseiluak hizkuntza ofizial eta lan hizkuntza estatusa onartu zioten, salbuespen egoerari amaiera emateko.

Irlanderaren prozesuak garbi erakusten du tratatu hizkuntza izatearen garrantzia, horrek bidea ematen baitu gero hizkuntza ofizial eta lan hizkuntza bihurtzeko. Garrantzi horren beste

erakusgarri bat da tratu hizkuntza izateak eskubide linguistikoekin duen lotura estua. Maastrichteko tratatuak (1992) berrikuntza bat ekarri zuen, gero etorri diren tratatu guztiek jaso dutena, eta hizkuntza eskubideen ikuspuntutik kontuan hartzeko modukoa: *Batasuneko herritar* kontzeptua, horrek dakartzan eskubide eta betebeharrekin. Horien artean bada bat, guri dagokigun gaian formulazio argi bat egiten duena (Amsterdamgo erreformaren ondoren Tratatuaren 17.etik 22. artikulura bitartekoetan jasotakoa): herritarrak edozein tratatu hizkuntza erabiltzeko eskubidea du Europako erakundeekin izan ditzakeen harremanetan. Horrela, eduki berri bat ematen zaio *tratu hizkuntza* kontzeptuari, EBko herritarrek erkidegoko erakunde eta organoekin harreman hizkuntza izatearena. Eskubide horren muina idatzizko harremanetan erabiltzen diren agirik erabateko ondorio juridikoak izatea da, eta baita erantzuna aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea ere, herritarrak aukeratutako edozein tratatu hizkuntzatan, herritarraren naziotasuna edozein dela ere. Tratatu hizkuntzetan (hau da, estatu hizkuntzetan) bakarrik gauzatzen dira hizkuntza eskubideak.

Europako Konstituzioaren proiektuak, gerora Frantziaren eta Holandaren ukoaren ondotik hutsean geratu denak, ez zuen aldaketa handirik ekarri, tratatu hizkuntzei *konstituzio hizkuntza* deitzeaz aparte. Badira berritasun batzuk, eta atzerapausoak ere bai (hizkuntzagatiko bereizkeria kontuan ez hartzea, esate baterako) (Behatokia, 2005: 19), baina funtsean lehengoari eusten zaio. Esate baterako, hala dio EBko herritarren oinarrizko eskubideak jasotzen dituen II. tituluan:

“Konstituzioaren hizkuntzetako bat erabiltzeko eta erantzuna hizkuntza horrexetan jasotzeko eskubidea dute, Europako Parlamentuari eskaerak egin, Europako Arartekoarengana jo eta Batasuneko instituzio eta organo aholku-emaileei zuzentzean” (I-10 artikulua, d).

Irizpide hori berresten du administrazio ona izateko eskubideaz ari denean ere:

“Pertsona orok jo ahal izango du Batasuneko instituzioetara Konstituzioaren hizkuntzetakoren batean, eta erantzuna ere hizkuntza horretan jaso behar du” (II-101.4 artikulua).

Aipatzen diren erakunde eta organoak aurreko tratatuetan ageri diren berberak dira (beherago banan-banan ikusiko ditugunak), edozein konstituzio hizkuntza erabiltzeko eskubidean ere, lehen bezala, ez dago inolako mugarik, ez irizpide subjektiboengatik ez lurralde irizpideengatik. Aldaketa azpimarragarri bakarra eskubidearen objektua zabaltzea izan da: lehen idatzizko harremanetara mugatzen bazen ere, Konstituzio proiektuan EBko

erakundeekin eta organoekin ahozko harremanetan ere edozein konstituzio hizkuntza erabiltzek eskubidea bermatzen baita.

Itun Konstituzionalen porrotaren ondoren, 2007ko ekainaren 23ko goi bileran erabaki zen Tratatu berrirako proiektuari bultzada ematea. Ikusteko dago laster sortuko den Gobernuen arteko Konferentziak zer bide egingo duen, baina segurutzat jo daiteke hizkuntzaren arloan, beste arlo gehienetan bezala, funtsean lehengoari jarraituko zaiola. Zenbait analista politikok esatera, estatuen pisua eta garrantzia handiagoa izango da aurreko Konstituzio proiektuan baino, eta horrek, bistan da, indartu egingo ditu estatu hizkuntzak eremu urriko hizkuntzen kaltetan.

2.2 Indarrean dagoen legeria

Gaur egun indarrean dagoen lege-esparrua aztertzen hasi orduko bada oso deigarria egiten den kontu bat: hizkuntzei dagokienez, indarrean dauden arauak ez dira lehen zuzenbidekoak (tratatu eratzailan jasotakoak), bigarren zuzenbidekoak edo zuzenbide eratorrikoak baizik. Egun indarrean dagoen tratatuaren 290. artikulua ez du berriaz inolako erabakirik hartzen erkidegoko erakundeen hizkuntza eraentzaz, eta Kontseiluak aho batez har ditzakeen erabakien esku geratzen da auzia. Nizako Tratatuan salbuespen bakar bat egin zen, Justizia Auzitegiaren estatutu bereziarena:

“Kontseiluak finkatuko du Erkidegoko instituzioen hizkuntza-sistema, aho batez, Justizia Auzitegiaren estatutuan aurreikusitako xedapenen kontra jarri gabe”.

Horrelako erabakiak Kontseiluaren esku uzteak zuzenean estatuen menpe dagoen erakunde baten esku uztea esan nahi du. Parlamentuaren edo Batzordearen eskumenen artean sartu ez izanak eta, batez ere, estatu guztiek aho batez onartu behar izateak garbi erakusten dute estatuentzat zenbaterainoko garrantzia duen hizkuntzen auzi honek, eta argi adierazten du ez daudela prest eskumen hori “erkidegokoago” diren erakundeen erabakien baitan uzteko.

Konstituzio proiektuaren III-433 artikulua ere irizpide bera jaso zuen:

“Kontseiluak aho batez onartuko du Batasuneko instituzioen hizkuntza-araubidea ezarriko duen europar erregelamendua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren estatutuan jasotakoari kalterik egin gabe”.

Beraz, tratatu berriarekin zer gertatuko den ikuskizun badago ere, badirudi aurrerantzean ere irizpidea berbera izango dela, eta auzi hau bigarren mailako arauen bitartez erregulatzen jarraituko duela Europar Batasunak.

Gauzak horrela, oraindik ere indarrean dagoena 1/1958 Arautegia da, 1958an garai hartako Europako Ekonomia Erkidegoaren eta Energia Atomikoaren Europar Erkidegoaren hizkuntzak arautzeko sortu zena. Adierazgarria da arautegi horrek hainbeste urte iraun izana, eta berriz ere estatuen borondate zurrunaren isla da, eta oraingo estatusa birplanteatzeko interesik ezarena.

1/1958 Arautegia *hizkuntza ofizial* eta *lan hizkuntza* kontzeptuetan oinarritzen da, nahiz eta ez duen definizio zehatzik ematen. 1. artikuluan bertan jasotzen dira zein diren hizkuntza horiek, gorago aipatu ditugun 23 estatu hizkuntza berberak, azken bertsioan Irlandako gaelikoa barne. Hizkuntza bakar bat geratu da, estatu hizkuntza izan arren, zerrendatik kanpo: luxenburgera. Luxenburgok, Irlandak bere garaian egin zuen bezala, uko egin zion bere hizkuntza ofizial bihurtzeari, Erromako Tratatu sinatu zuen garaian frantsesa eta alemana baitziren estatuko hizkuntza ofizial bakarrak. Gerora luxenburgera hirugarren hizkuntza ofizial bihurtu arren, ez dute Europar gaelikoaren ofizialtasun bidea jarraitu, nahiz eta arlo mugatu batzuetan (*Lingua programan*, esaterako) onartua izan den.

Bistan da Europar hizkuntza ofizial izateko erabili den irizpidea ez dela dagokion lurraldean ofiziala izatearena, bestela euskara eta euskararen egoeran daudenak ere ofizialak liratekeelako. Praktikan erabili den irizpidea estatu kideen lurralde osoan ofizial izatearena izan da; estatu osoan ofizial izateak egiten du nonbait estatu hizkuntza eta, ondorioz, Europako hizkuntza ofizial. Hala ere, Ponsen iritziz (Pons, 2007: 45) ez dago, arautegiaren letrari estu jarraituz gero, inolako oztopo juridikorik estatu baten lurralde osoan ofizial ez direnak ere aintzakotzat hartzeko, beti erabileremu urriko hizkuntza gutxitu edo erregio hizkuntza estatusera mugatuta eduki gabe.

1/1958 Arautegiak, batez ere, EBko erakundeekiko harremanetako hizkuntzen erabilera eta erakunde horien egintza juridikoen argitalpena arautzen ditu. Harremanei dagokienez, 2. artikulua xedatzen du estatu kideek eta herritarrek EBko erakundeei bidaltzen dizkieten idatzietan igorleak erabakitako hizkuntza ofiziala erabiliko dela. Erakundeek estatuei edo herritarrei bidalitakoetan, ordea, beti dagokion estatuaren hizkuntza erabiliko da (3. artikulua), eta estatu horretako hizkuntza ofizialak bat baino gehiago direnean, estatu horretan indarrean dagoen legeria hartuko da kontuan (8. artikulua). Azken artikulua horrek interes berezia du

gurea bezalako kasuetan, estatuen esku uzten duelako kasu bakoitzean barruko zein hizkuntza ofizial erabili behar den erabakitzeke modua.

Egintza juridikoak zer hizkuntzatan sortu eta argitaratu behar diren arautzeko orduan 4. artikulua xedatzen du arautegiak eta irismen orokorreko gainerako testuak hizkuntza ofizial guztietan idatzi behar direla, eta 5. artikulua hizkuntza ofizial guztietan argitaratuko direla Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean.

Hala ere, dena ez da 1/1958 Arautegian jasotzen. 6. artikulua dioenez, erakundeek arautegia aplikatzeko modu zehatzak erabakitzeke ahalmena dute, beren barne arautegien bitartez. Gainera, hizkuntza ofizial eta lan hizkuntza kontzeptuak zehatz definitu ez izanak ere bere ondorioak ditu. Arautegiak kasurik gehienetan hizkuntza ofizialak aipatzen ditu, baina horrek ez du lan hizkuntza gisa erabili beharrik sortzen. Kanpo harremanetarako eta argitalpenetarako nahiko zehaztuta badago ere, barneko harremanetako lan hizkuntza erabakitzea erakunde bakoitzaren barne arautegiaren esku geratzen da, eta hori da orain kasuz kasu aztertuko duguna.

2.3 Erakunde eta organismoen hizkuntza arautegiak

Europar Batasuneko erakunde bakoitzak onartuta dauka bere barne arautegia, bai barne harremanetarako (lan eta prozedura hizkuntzak), bai kanpo harremanetarako. Baina kontuan izan behar da arau hauek (Fabeiro, 2005:76) EBren “antolaketari buruzko arautegia” osatzen dutela eta ez dutela aplikazio esparru orokorrik. Horrek ez du esan nahi, ordea, arautegiaren eraginak dagokion erakundearen funtzionamenduan agortzen direnik. Izan ere, gerta liteke arau horiek dagokion erakundearen funtzionamendua gainditzea eta beste erakundeekiko harremanetan eragina izatea. Gainera, barne arautegi horietan oinarrituta, herritarrek zenbait izapide edo prozedura betetzeko eska dezakete, eta, beraz, erakundeaz gairik garrantzia izan dezakete.

1.- Europako Batzordearen barne arautegia.

Kanpora begira, barne araudiaren 18. artikulua dioenez, irismen orokorreko egintzak eta lege proposamenak Erkidegoaren hizkuntza ofizial guztietan onartu behar dira, eta egintza horiek hartzailerik zehatzak dituztenean, dagozkien estatuen hizkuntzetan.

Barne harremanetan, bileretako deiak, laneko agiriak eta kideen proposamenak zer hizkuntzatan egin behar diren 25. artikulua arautzen du, baina oso modu berezian, berriz ere Batzordearen esku uzten baitu kasu bakoitzean zer hizkuntza erabili behar diren. Praktikan hiru dira erabiltzen diren hizkuntzak: ingelesa, frantsesa eta alemana, baina maiz zuzendaritza orokorren mailan interpretazio zerbitzuari uko egin eta frantsesa edo ingelesa erabiltzen dira. Tradizioz hizkuntza nagusia frantsesa izan bada ere, pixkanaka ingelesa ari da gailentzen, batez ere 1995eko hedapenaren ondotik.

Kanpo harremanetarako arauari jarraituz, Batzordeak dagokion estatuaren edo herritarraren hizkuntza erabili behar duenez, praktikan frantsesera edo ingelesera itzuli beharra dago barruko prozeduretako hizkuntzak horiek direlako, eta erabakia hartu ondoren berriz itzuli beharko da dagokion estatuaren edo herritarraren hizkuntzara.

2.- Europar Batasuneko Kontseiluaren barne arautegia.

Kontseilua, estatu kideetako ministroek osatua, EBko erabakigune nagusia da. Lege mailako erabakiak hartu behar direnean itzulpena bermatuta dago, eta bilera hasi aurretik hizkuntza guztietako bertsioak prest egoten dira. Horrela egin ezean gerta liteke kideren batek eztabaidan parte hartzeari uko egitea. Arau horrek salbuespenak izan ditzake, baina presazko arrazoiengatik bakarrik eta aho batez onartu eta gero.

Erabakiak hartzeko orduan irizpidea oso zorrotza da: estatu kide guztietan eragina izango duten Arautegiak, Zuzentarauak eta Ebazpenak direnean, ezinbestekoa da hizkuntza ofizial guztietara itzultzea, bestela ez baitira indarrean sartuko. Gauza bera gertatzen da Parlamentura igortzen diren erabakiekin ere.

Oso bestelakoa da egoera ministroak erabakirik hartzeko asmorik gabe bilera informaletan biltzen direnean, horrelakoetan bi edo hiru hizkuntzatan egiten baita lan (ingelesez, frantsesez eta alemanez) edo ingelesez, frantsesez eta txandakako presidentzian dagoen estatuaren hizkuntzan.

Ministroen osoko bilkurak alde batera utzita, beheagoko mailako organoetan eta lan taldeetan ez da praktikan itzulpenik erabiltzen eta betiko hizkuntza nagusietan egiten da lan.

3.- Europako Parlamentuaren arautegia.

Zalantzarik gabe erakunde hau da hizkuntza ofizialen berdintasuna serioen eta estuen hartzen duena. 1982ko A1-306/82 Ebazpenean onartu zen hizkuntza aniztasunaren printzipioa eta hizkuntza ofizialen eta lan hizkuntzen berdintasunaren aldeko erabakia hartu zuen

Parlamentuak. 1995eko hedapenaren aurrean, beste ebazpen batek berretsi egin zuen printzipio hau: parlamentariak herritarren ordezkari direnez, bilkuretan herritar horien hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie, horrela lortuko baita erakundea herritarrengandik gertu egotea eta errazagoa izango baita herritarren Europa eraikitzea.

Printzipio horren ondorioak Arautegian daude jasota: agiri guztiak hizkuntza ofizial guztietara itzuli behar dira, eta ahozko jardun guztiak ere bai, aldi bereko interpretazio sistema baten bitartez. Azken urteetan izan diren hedapen prozesuekin hizkuntza kopurua hazi egin bada ere, horrek ez du inolako aldaketarik ekarri, ondo finkatutako praktika bat den seinale. Gainera, zenbaitetan estatu hizkuntza ez diren beste hizkuntza batean jarduteko aukera ere zabalik geratu da Parlamentuko mahaiak egoki irizten badio, baina aukera hori (inoiz euskaraz aritzeko bidea irekiko lukeena) oso bakan erabili izan da. Bestalde, eskaera eskubideari dagokionez, EBko hizkuntza ofizialetako batean egin beharra dago, eta, beste hizkuntza batean egingo balitz, itzulpen edo laburpen bat aurkeztu beharko litzateke hizkuntza ofizial batean, hizkuntza ofizial horretan jarraituko bailuke aurrera barruko prozedurak.

Eleaniztasun integral kontrolatua izena eman dio Parlamentuak printzipio honi: interpretazio zerbitzua eskaintzen da EBko hizkuntza guztietatik beste hizkuntza guztietara. Horrela egiten da osoko bilkuretan, Parlamentuaren organoen bileretan, batzordeetan eta talde politikoen bileretan. Nolanahi ere, parlamentari multzo mugatua duten edo bileretan Parlamentuaren erabakietan eragin zuzena ez duten prozeduretan formula malguagoak onartzen dira. Bestela esanda, lan ofizialak eta lan hizkuntzak identifikatzen jarraitzen badu ere, azken hedapenek zenbaitetan konponbide praktikoagoetara jo beharra ekarri dute.

4.- Justizia Auzitegiaren barne arautegia.

Prozedura hizkuntzak EBko hizkuntza ofizial guztiak dira, gaelikoa barne, nahiz eta azken hori oso gutxitan erabili izan den. Helegiteetan errekurtsogileak aukeratzen du hizkuntza, haren naziotasuna edozein dela ere, baina auzia estatu baten edo estatu kide bateko pertsona baten kontrakoa bada, estatu horren hizkuntza izango da prozeduran erabiliko dena. Epaiketa aurreko arazoetan (lan honen muina diren epai horietan) Auzitegiari galdera hori aurkezten dioen epaitegiarena izango da. Hala ere, auziko aldeek hala eskatzen badute, Auzitegiak erabaki dezake beste hizkuntza ofizial bat erabiltzea prozedura hizkuntza gisa.

Gerta liteke, ordea, lekukoak eta adituak prozedurako hizkuntzak hitz egiteko gai ez izatea. Orduan bidea zabalik uzten da beste hizkuntza bat erabiltzeko, baita EBko hizkuntza ofizial

ez direnetako bat ere, beti ere prozedurako hizkuntzara itzulpena edo interpretazioa egin bada ere.

Nolanahi ere, bereizketa garrantzitsu bat egin beharra dago, gauza bat baita prozedura hizkuntza eta beste bat Justizia Auzitegiak barruko harremanetan erabiltzen duen lan hizkuntza. Lan hizkuntza hori frantsesa denez, horrek beste ondorio bat ere badu: prozeduran zehar frantsesa ez den hizkuntza batean aurkezten diren agiri guztiak frantsesera itzuli beharra, eta, ondorioz, epaileek gehienetan itzultitako bertsioetan oinarrituko dute beren lana.

5.- Kontu Epaitegiaren barne arautegia.

EBko aldizkari ofizialean argitaratzen diren agiri guztiak (txostenak, diktamenak, oharrak, fidagarritasun deklarazioak...) hizkuntza ofizial guztietan eman behar dira. Barruko harremanei dagokienez, eztabaidarako aurkezten diren agiriak epaitegiak erabakitako lan hizkuntzetan egongo dira. Horrek “irtenbide pragmatikoei” bidea zabaltzen die: gehienetan frantsesez eta ingelesez egiten dira, eta zenbaitetan alemanez.

6.- Erakunde ez diren organismoen arautegiak.

a) Komite ekonomiko soziala. Kanpo harremanei buruzko irizpidea garbia da: diktamenak hizkuntza ofizial guztietan argitaratuko dira, bai Aldizkari Ofizialean, bai interneteko web gunean; eta herritarrek eskubidea dute komiteari edozein hizkuntza ofizialetan zuzentzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko. Lan hizkuntzei dagokienez, ez dago erabaki garbirik eta beti mahaiaren edo presidentearen esku uzten da erabakia, gaiaren eta parte-hartzaileen araberakoa.

b) Erregioen Komitea. Kasu honetan ere Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren diktamenak, txostenak eta ebazpenak hizkuntza ofizial guztietan emango dira. Barne harremanetan aipamen gutxi egiten dira hizkuntzen erabilerari buruz. Batetik, nazio ordezkartzek informazioa beren hizkuntza jasoko dutela bermatzen da; eta bestetik, bilera deiak eta bileretarako dokumentazioa nori bere hizkuntzan bidali beharra xedatzen da.

c) Europako Arartekoa. Tratatuaren hizkuntzak izango dira prozedura hizkuntza eta erreklamazioa zein hizkuntzatan dagoen, hori izango erabiliko dena. Europako Arartekoa ez dago behartuta bestelako hizkuntzetan aurkeztutako kexuak aintzakotzat hartzera. Estatuetik harremana dagokion estatuaren hizkuntzan egingo da, eta txostenak eta agiriak, ahal dela, hizkuntza ofizial guztietan argitaratuko dira. Barrura begira, Arartekoak erabakiko du zein agiri egon beharko duten prozedura hizkuntzan.

d) Banku Zentrala. Argitaratu beharreko arautegi, gomendio edo erabakiak hizkuntza ofizial guztietan emango dira, baina bestelako jarraibideetan aukera uzten da hizkuntza ofizial bakar batean jakinarazteko. Lan hizkuntzari dagokionez, praktikan ingelesa da erabiltzen den bakarra.

e) Badira, erakunde eta organismo horiez gain, hizkuntza arautegiak dituzten bulego garrantzitsu batzuk ere. Patenteen bulegoak, esate baterako, erregistroa hiru hizkuntzatan (frantsesez, ingelesez eta alemanez) soilik egin daitekeela aurreikusten du. Barne Merkatua Harmonizatzeko Bulegoak, berriz, bost hizkuntza aukeratu ditu agentziaren hizkuntza gisa, goiko hirurak gehi italiera eta gaztelania.

Bistan da erakundeen eta organismoen hizkuntza araudiak oso desberdinak direla, badirela eleaniztasunarekin benetako konpromisoa dutenak, baina baita arrazoi praktikoengatik hizkuntza kopurua murriztera jotzen dutenak ere. Nolanahi ere, badira ezaugarri batzuk erakunde gehienetan aurki daitezkeenak. Alde batetik, kanpo harremanetarako edo printzipio politikoeekin lotura estua duten erabileretarako eleaniztasuna eta hizkuntzen berdintasuna onartzen dira, baina, bestetik, barruko harremanetarako eta eguneroko lanerako hizkuntza jakin batzuk nagusitzen dira. Panorama horretan zaila da estatu hizkuntza ez diren arren ofizialtasuna duten hizkuntzek ere tokia izatea, Parlamentua bezalako erakunde batean onar daitekeen erabilera testimonialen salbuespena kenduta.

Arauk arau, ez dago benetako praktika islatzen duten datu estatistikoak jakitea bezalakorik, hizkuntzen erabilera errealaz ikuspegi zehatza izan nahi badugu. 1994an egin zen ikerketa batek (Pons, 2007: 55) garbi erakusten du zein den egoera. EBko erakundeetan hizkuntza nagusia frantsesa da (%69 ahozko harremanetan eta %75 idatzizkoetan), bigarrena ingelesa (%30 ahozkoetan, %25 idatzietan), eta hirugarrena, alemana, oso urruti geratzen da, ez baitu %1 gaintzen. Estatu kideen erabileran ere frantsesa da nagusi (%54 eta %56), baina ingelesa hurbildu egiten zaio (%42 eta %41); alemanak urruti jarraitzen du (%3 eta %2) eta gainerako hizkuntzen erabilera ia maila sinbolikoan geratzen da.

Egoera horrek garbi adierazten du hizkuntza ofizial eta lan hizkuntza kontzeptuen parekatzea oso teorikoa dela, baina praktikan ez dela horrela gertatzen. Siguanek dioenez (Siguan 2005: 178), EBko administrazio prozedura gehienak ingelesez eta frantsesez hasten dira, gero lortzen diren emaitzak hizkuntza guztietara itzultzen badira ere. Kanpora begirako komunikazioak ere hizkuntza horietan hasten dira, eta gero gainerako guztietan ematen dira. Horiek dira praktikan lan hizkuntzak, eta askoz maila apalagoan alemana, gaztelaniaren eta italieraren pisua hutsaren hurrena den bitartean.

Itzulpen zerbitzuek egiten duten lan eskerge aitortu arren, bada, Siguanen ustez, beste faktore bat, lan hizkuntzen murrizketa ia saihestezin bihurtzen duena: funtzionarioen hizkuntza prestakuntza. Hizkuntza ofizial guztia klan hizkuntza bihurtzeko ezinbestekoa da funtzionarioek hizkuntza asko ezagutzea, eta ez da hori gertatzen dena. Ama hizkuntzaz gain, beste bitan edo hirutan moldatzen dira ondo gehienak, normalean frantsesez eta ingelesez, nahiz azken hedapenen ondoren alemanaren presentzia ere indartu egin den.

2.4 Hizkuntza eskubideen egoera Europar Batasunean

Panorama horretan hizkuntza eskubideen aitortenaren arazoa ez da planteatu ere egiten, eta estatu hizkuntza ez direnen onarpenaren auziak oso bide malkartsua du. Lan hizkuntzen praktika oso mugatzailea da, baina tratatu hizkuntza edo nolabaiteko erdiofizialtasun maila lortzea ere oso zail ikusten da. Europako Parlamentua da, dudarik gabe, Ministroen Kontseilua ez bezala, eremu urriko hizkuntza deitutakoen estatusaren alde gehien egin duena. Horren erakusgarri hor daude 1981eko Arfe ebazpena, 1983ko Kuijpers ebazpena eta, batez ere, 1994ko Kililea ebazpena, EBko hizkuntza eta kultur gutxiengoei buruzkoa. Ebazpen horrek hizkuntza horiek kontuan hartzea eskatzen du, besteak beste, EBko zenbait politika (gazteria, hezkuntza, kultura, hedabideak, ikus-entzunezkoak...) diseinatzeko orduan edo teknologia berrietan eta telekomunikazioen alorrean, eta Lingua programa hizkuntza horiei ere zabaltzeko eskatu zuen. Parlamentuaren eraginez lortu zen Batzordeak EBLUL sortzea ere, eremu urriko hizkuntzen bulegoa. Geroztik ere izan da ekimen interesgarririk; azkenekoak aipatzeagatik hor daude EBNER txostena (2003) edo sortu berria den Hizkuntza Aniztasunerako Goi Mailako Taldera ere.

Ez da lan honen helburua hizkuntza eskubideek Europar Batasunean duten egoera aztertzea, baina, bide batez eta oso azaletik bada ere, komenigarria dirudi behintzat eskubide horien aitortenari begira proposatu diren zenbait bide aipatzea. Horietako bat izan daiteke Iñigo Urrutiak eta Iñaki Lasagabasterrek proposatutakoa (Urrutia, 2006: 260): Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna, Europako Kontseiluak 1992an onartua eta estatu askok berretsia, Europar Batasunak ere bere gain hartzea. Itun hori ez da, zentzurik estuenean ulertuta, hizkuntza eskubideak jasotzen dituen agiri bat, batez ere balio programatikoa duelako, baina itun horretan jasota dauden konpromisoak EBk ere bere gain hartuko balitu, aurrerapauso handia izango litzateke. Nolanahi ere, Europako nukleo gogorreko estatu

batzuen jarrerak ikusita (Frantziak ituna berretsi ez izana, adibidez, Sarkozyren hauteskunde aurreko hitz baikorrak gorabehera) ez dirudi oso bide erraza izan daitekeenik.

3. JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIEN AZTERKETA

Epaien azterketari ekin aurretik gogorarazi behar da EBJAren epaien oinarrian dauden arauak ez dira hizkuntzari buruzko arau esplizituak. Aurreko atalean ikusi dugu hizkuntzari buruzko arau esplizituak oso gutxi direla, oso arlo mugatuak arautzen dituztela eta, gainera, bigarren mailako zuzenbide eratorrikoak direla.

EBJAK aintzakotzat hartzen duen zuzenbidea, ordea, batzuetan oinarrizko zuzenbidea da (tratuak) eta besteetan bigarren mailako eratorria (zuzentarauak, arautegiak...), baina ez da berez hizkuntza auziak arautzeko sortua, baizik-eta beste arazo batzuk argitzeko onartutakoa (merkatu bateratua, ondasunen eta zerbitzuen mugimendu askatasuna, langileen mugimendu askatasuna...), EBren politikaren muina diren gai horiekin lotutakoa.

Horren ondorioz, EBJAren epaietan inplizituki dagoen hizkuntza politika oso lausoa da, zehaztugabea eta askotan kontraesanez bete. Beste irizpide batzuetan bilatzen da koherentzia (ondasunen eta zerbitzuen mugimendu askeari buruzko arauetan edo nor bere lanbidean edozein estatutan askatasunez aritzeko eskubidean), eta hizkuntzei buruzko jarraibideak bigarren maila batean eta goragoko printzipioen mendean geratzen direnez, inkoherentzia eta kontraesana ia saihestezinak dira.

Epaiak banaka aztertuko ditugu, baina gai jakin batzuen inguruan egindako multzoetan bilduta.

3.1 Etiketak eta patenteak

3.1.1 Patenteak

- 44/98 kasua: BASF AG eta Alemaniako Patenteen Bulegoa.

Epai hau 1997. urtean Alemanian hasitako prozedura bati dagokio eta 1999ko irailaren 21ean eman zuen Auzitegiak, Alemaniako Patenteen Epaitegiak (*Bundespategericht*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, BASF AG konpainiak Alemaniako Patenteen Bulegoko presidentearekin izandako auzi bat dela medio. Arazoaren muina Alemaniako

legerian indarrean dagoen betekizun bat da, patente bat erregistratu ahal izateko alemanezko bertsio bat eskatzen duena.

BASF konpainia autoen pintura zigilatze osagaiei buruzko Europa mailako patente baten jabea zen, aurreko jabeak, BASF Corporation enpresa estatubatuarra transferitutakoa, ingelesez idatzitakoa eta, besteak beste, Alemanian ere indarrean egon behar zuena. Baina Alemaniako Patenteen Bulegoak 1997an erabaki zuen patente hori *ab initio* baliogabetzat jotzea, patentearen espezifikazioen alemanezko itzulpenik aurkeztu ez izanagatik.

Erabaki horren oinarrian Europako Patentei buruzko Ituna zegoen. Itun horren 14. artikulua dioenez, Europako patenteen espezifikazioak patentea erregistratzeko erabili den prozedura hizkuntzan argitaratu behar dira. Patenteen Bulegoan hiru ziren hizkuntza ofizialak (ingeleza, frantsesa eta alemana) eta erregistro eskabideak hiruretako edozeinetan aurkeztu zitezkeen. 65. artikulua, ordea, beste baldintza bat ere ezartzeko aukera onartzen zien estatu kideei: patentearen testua estatu horren hizkuntzan idatzita ez badago eta epe jakin baten barruan itzulpenik bidaltzen ez bada, patentea baliogabetu egin dezake estatu horrek berari dagokion lurraldean.

Hori da Alemaniako Patenteen Bulegoak egin zuena; bertako legeriari jarraituz, BASFen patentea baliogabetu egin zuen, konpainiak ez baitzuen hiru hilabeteko epean itzulpenik aurkeztu. Konpainiak, bere aldetik, erabakia deuseztatzeko eskea egin zuen, Tratatuaren 30. eta 36. artikuluen kontrakoa zelakoan, ondasunen mugimendu askea bermatzen duten artikuluen aurkakoa, alegia. BASFek argudiatu zuen patentearen espezifikazio guztiak itzultzeak dakarren kostua ikaragarri handia dela, estatu guztietan itzulpen bat aurkeztea ezinezkoa dela, eta horrek konpainia aukera bat egitera behartzen duela, zein estatutan aurkeztu eta zeinetan ez. BASFen ustez, horrek EBko barne merkatua banatzea dakar: batetik, zonalde babestu bat legoke, patentea onartu duten estatuak osatua; eta bestetik, zonalde aske bat. Enpresaren iritziz, hori oztopo handia da EBko barne merkataritzarako, zonalde askean enpresa lehiakideek eskubidea izango luketelako babesik gabeko produktu hori ekoitzi eta merkaturatzeko.

EBJAK ez zituen BASFen argudioak aintzakotzat hartu, eta Alemaniako legeriak ezarritako hizkuntza eskakizunaren alde egin zuen. Auzitegiak onartu egin zuen ondasunen mugimenduan aldeak egon zitezkeela, baina ez zuen onartu barne merkatuaren banaketaren tesia. Izan ere, erkidegoko barne merkatuko gorabeherak faktore askoren mendean daude, batez ere merkatu desberdinetako baldintzak kontuan hartuta eragileek une bakoitzean hartzen dituzten erabakien mendean, gehienetan aurreikusi ezin diren faktoreen mendean, beraz.

Egoera horretan, nahiz eta onartu merkatuaren banaketa horrek ondasunen mugimenduan eragin murrizgarriak izan ditzakeela, Auzitegiarentzat eragin horiek oso zeharkakoak eta oso zalantzakoak dira.

Epaia, beraz, oso argia da eta ez du debekatzen Alemaniako legeriak ezartzen duen hizkuntza eskakizuna:

“Article 30 of the Treaty (now, after amendment, Article 28 EC) does not preclude the application of provisions such as Article II(3) of the Gesetz über internationale Patentübereinkommen, according to which a patent granted by European Patent Office with effect in a Member State which is drafted in a language other than the official language of that Member State is to be deemed void ab initio if the patent holder does not file with the patent office of the Member State in question a translation of the patent specification in the official language of that Member State within three months of the publication in the European Patent Bulletin of the mention of the grant of the patent”.

Epaiak, beraz, kasu honetan estatu hizkuntzen alde egiten du. Nahiz eta Europako Patenteen Bulegoko hizkuntza ofizialak hiru izan, estatuen esku geratzen da, prozeduran erabili den hizkuntza berea ez bada, patenteen espezifikazioen testua bere estatu hizkuntzan egon dadila exijitzea.

Bestalde, EBJAk erabiltzen duen formulazioak (*the official language of that Member State*) estatu hizkuntzak soilik hartzen ditu kontuan. Horren arrazoia EBJAk aplikatu duen arauan bilatu behar da, Europako Patentei buruzko Itunaren 65. artikulua estatu hizkuntzak aipatzen baititu (*State's official language*). Oinarri horrekin estatu hizkuntza ez den batek, bere eremuan ofiziala izan arren, nekez izango du tokirik patenteen alorrean.

3.1.2 Etiketak

Etiketen auzi honetan beste gaietan baino epai gehiago eman ditu EBJAk, barne merkatua arautzeak eta salgaien mugimendu askea bermatzeak Europar Batasunean duen garrantziaren seinale.

- 369/89 kasua: PIAGEME I.

Epai hau 1989. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 1991eko ekainaren 18an eman zuen Auzitegiak, Lovainako Merkataritza Epaitegiak (*Rechtbank van Kophandel Leuven*)

aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, PIAGEME elkarteak (*Groupement des Producteurs, Importateurs et Agents Généraux d'Eaux Minérales Étrangères*) eta beste zenbait elkartek eta enpresak Peeters BVBA banaketa eta salmenta enpresarekin izandako auzi bat dela-eta.

Arazoa ur mineralaren botilen etiketetan Flandesko hizkuntza ez agertzeak sortu zuen, frantsesez eta alemanez bakarrik ematen baitzen etiketako informazioa. PIAGEME eta gainerako elkarteek beren burua kaltetuta ikusi zuten, eta auzitara eraman zuten Peeters enpresa Belgikan indarrean dagoen legeria urratzen zuelakoan, estatuko lege batek xedatzen duenez, etiketetan ageri diren argibideak gutxienez eskualdeko hizkuntzan edo hizkuntzetako batean eman behar baitira. Auzi horretan Tratatuako 30. artikulua eta 79/112 Zuzentarauaren interpretazioa zalantzarik izan zitekeelako aurkeztu zuen epaitu aurreko arazoa Lovainako Merkataritza Epaitegiak, hori izan baitzen Peeters enpresak bere defentsan erabili zuen argudioa. Izan ere, zuzentaru horren 14. artikulua etiketak erosiak erraz ulertzeko moduko hizkuntzan argitaratzea askizat jotzen du, eta hori erosiak behar bezala informatzeko bestelako neurriak hartu ez direnean soilik.

EBJAren ustez, zuzentaruak ezartzen duen betebeharrak bakarrik erosiak erraz ulertzeko moduko etiketak ez dituzten salgaiak debekatzea da, baina inola ere ez hizkuntza jakin bat erabiltzera behartzea. 14. artikulua hitzez hitz modu estuan ulertuz gero, ez luke EBJAren iritziz, etiketak eskualdeko hizkuntzan edo hizkuntzetan idatzi beharra baztertuko, bertako hizkuntza baita erraz ulertzen dena, baina interpretazio horrek ez lituzke zuzentaruaren benetako helburuak aintzat hartuko: salgaien mugimendu askea oztopatzeko estatuen baldintzen desberdintasunak ezabatzea. Horregatik baimentzen du zuzentaruaren 14. artikulua etiketak erraz ulertzeko moduko hizkuntzan ez egoteko aukera ere, baldin eta erosiak informatuta edukitzeko bestelako neurriak hartu badira.

Beraz, EBJAren ebazpenaren arabera, “erraz ulertzeko modukoa” baino baldintza zorrotzagoak jartzea (eskualdeko hizkuntza edo hizkuntzak erabili beharra) zuzentaruak eskatzen duena baino haratago doa eta Tratatuaren 30. artikulua urratzen du, inportazioen gaineko murrizketa delako. Hala dio epaiak:

“Article 30 of the EEC Treaty and Article 14 of Council Directive 79/112 of 18 December 1978 on the approximation of the laws of the Member States relating to the labelling, presentation and advertising of foodstuffs for sale to the ultimate consumer preclude a national law from requiring the exclusive use of a specific language for the labelling of

foodstuffs, without allowing for the possibility of using another language easily understood by purchasers or of ensuring that the purchaser is informed by other measures”.

- 85/94 kasua: PIAGEME II.

Epai hau 1994. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 1995eko urriaren 12an eman zuen Auzitegiak, Bruselako apelazio epaitegi batek (*Hof van Beroep*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, berriz ere PIAGEME eta beste elkarte batzuk Peeters NV enpresaren aurka izan zuten auzi bat zela medio. Aurreko kasuan bezala, atzerriko ur mineralen banaketan eta salmentan etiketatuko hizkuntzen inguruan sortutako arazoa da epaiaren gaia.

Funtsean aurreko kasuko eztabaida bera da, nahiz eta oraingoan Tratatuaren 128. eta 129. artikulua ere aipatzen zituen galdera aurkeztu zuen epaitegiak. 128. artikulua estatuetako eta eskualdetako kultur aniztasuna babesteaz dihardu, eta 129. artikulua osasun publikoaren arloan estatuen arteko lankidetzaz. EBJAren ustez, ordea, ez 128. artikulua eta ez 129. artikulua ez dute baimentzen zuzentarauak ezarritako baldintza (erraz ulertzeko moduko hizkuntzarena) zorrotzagoa den beste batengatik ordezkatzeko (eskualdeko hizkuntza erabili beharra). Ez dago, beraz, aldaketarik 369/89 kasuan emandako iritzian.

Baina beste bi galdera ere planteatu zizkion Bruselako apelazio epaitegiak EBJAri: batetik, irizpidea etiketan agertu behar duten xehetasun guztiei aplikatu behar zitzaie jakin nahi zuen edo kontsumitzailea produktuarekin ohituta egotea kontuan hartu behar den; eta bestetik, zuzentzarauaren 14. artikulua aipatzen dituen “eroslea informatzeko beste neurriak” etiketatuko xehetasunen ulergarritasunari dagozkion edo salgaia eskaintzen den testuinguru orokorra ere kontuan hartu behar den.

Bi galderak batera aztertu zituen EBJAk. Eroslea eta azken kontsumitzailea bereizi beharra dagoela kontuan hartuta, Auzitegiaren ustez, etiketatik kanpoko informazioak (saltokian legokeenak edo publizitatean zabaldu denak) ez du ziurtatzen kontsumitzailearen babesa. Zuzentzarauak zehazten dituen xehetasun guztiek azaldu behar dute etiketan, baina hizkuntzazkoak ez diren bideak ere aintzakotzat hartuta (marrazkiak, sinboloak, piktogramak...).

“All the compulsory particulars specified in Directive 79/112 must appear on the labeling in a language easily understood by consumers in the State or region concerned or by means of other measures such as designs, symbols or pictograms. The ease with which the information

supplied can be understood must be assessed in the light of all the circumstances in each individual case”.

Gainerakoan ez da 369/89 kasuko epaia ezertxo ere aldatzen.

- 385/96 kasua: Goerres dendaria.

Epaia hau 1996. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 1998ko uztailearen 14an eman zuen Auzitegiak, Akisgrango Tokiko Epaitegiak (*Amtsgericht Aachen*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Hermann Josef Goerres-en aurkako zigor prozeduran sortutako galdera bat dela-eta.

Abiapuntua Akisgrango agintari batek Goerres jaunaren aurka hasitako zigor prozedura da, Goerres jaunak bere dendan frantsesez, ingelesez eta italieraz soilik etiketatutako salgai batzuk zituelako, elikagaien etiketei buruz Alemanian indarrean dauden arauak hautsiz, arau horiek alemanezko etiketak jarri beharra ezartzen baitute.

Kasu honetan PIAGEME kasuetan ageri ez ziren ñabardura berriak egiten ditu EBJAk, Belgikako eta Alemaniako legerien arteko desberdintasunetan oinarrituta. Belgikan ez bezala, Alemanian, elikagaien etiketan hizkuntza jakin bat preskribitzen bada ere, bidea zabalik uzten da etiketa erraz ulertzeko moduko beste hizkuntza batean idazteko ere, eta horrek ez dakar, Auzitegiaren iritziz, zuzentarauak xedatutakoa baino baldintza zorrotzagorik ezartzea. Beraz, *“...the directive does not preclude national legislation which, as regards language requirements, prescribes the use of a specific language for the labeling of foodstuffs but which also permits as an alternative, the use of another language easily understood by purchasers”.*

Gainerakoan ordura arteko epaiekin bat egiten du, batez ere etiketez aparteko informazioa nahikoa ez dela dioenean. PIAGEME II kasuan bezala, legez ezarritako xehetasun guztiak etiketan jaso behar direla dio; izan ere, *“the placing in the shop of a supplementary sign adjacent to the product in question is not sufficient to ensure that the ultimate consumer is informed and protected”.*

Epaia irakurri ondoren, garbi geratzen da Alemanian indarrean dagoen araudia ez dagoela 79/112 Zuzentarauak xedatzen duenaren aurka, baina hor geratzen da EBJAk dioena, eta ez da garbi geratzen Akisgrango herritar batentzat ingelesezko, frantsesezko eta italierazko testuak erraz ulertzeko modukoak diren, eta beraz, horrekin soilik legea beteko litzatekeen.

- 33/97 kasua: Colim eta Bigg's Continent.

Epai hau 1997. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 1999ko ekainaren 3an eman zuen Auzitegiak, Belgikako Hasselt-eko Merkataritza Epaitegiak (*Rechtbank van Kopphandel*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Colim NV enpresak Bigg's Continent Noord NV enpresaren aurkako prozeduran sortutako bi galdera direla-eta.

Colim eta Bigg's, biak ere Limburg-en saltokiak dituzten enpresak dira, hizkuntzaz nederlandera nagusi den eskualdean, nahiz eta Bigg's konpainiaren egoitza nagusia, Waterloo dagoenez, beste hizkuntza eremu batekoa izan. Colim izan zen auzi-jartzailea, Bigg's enpresa lehiakideak ez zituelako nederlanderaz jartzen, ez paketeak, ez produktuen etiketak, eta horregatik isunak jartzeko eskatzen zion Merkataritza Epaitegiari.

Hasselt-eko Merkataritza Epaitegiaren galderetan, aurreko kasuetan ez bezala, 83/189 Zuzentaraua aipatzen da, produktuen arau teknikoak buruzkoa eta produktuak erabiltzeko jarraibideak eta garantia ziurtagiriak arautzen dituenak, eta horrekin batera estatu kideek Europako Batzordeari arau tekniko horiek jakinarazteko bideak erregulatzen dituenak. Argitu beharreko lehen kontua da erabilbideak eta garantia ziurtagiriak hizkuntza jakin batean idaztera behartzea "arau tekniko"tzat jo ote daitekeen, eta beraz, zuzentarauari jarraiki, Batzordeari jakinarazi behar ote zaion. EBJAren epaia ezezkoa izan zen: *"the obligation to give mandatory labeling particulars, instructions for use and guarantee certificates for products at least in the language or languages of the area in which those products are placed on the market does not constitute a "technical regulation" within the meaning of Directive 83/189"*.

Bigarren galdera betikoa da, ea inportatutako produktuei buruzko informazioa bertako hizkuntzan eman behar den edo aski den bertako kontsumitzaileek erraz ulertzen duten beste hizkuntza batean ematea. Puntu honetan bereizketa berri bat egiten du EBJAk: zenbait produktutan Europar Batasunean erabat araututa eta harmonizatuta dago ezar daitezkeen hizkuntza eskakizunen auzia, baina beste batzuetan ez dago inolako harmonizaziorik, edo, baldin badago, partziala da. Lehen kasuan garbi uzten du, ordura arteko epaien ildotik, estatu kideek ezin dutela hizkuntza eskakizun zorrotzagarik ezarri, baina bigarrenean estatu kideen esku geratzen da dagozkion hizkuntza arauak erabakitzea, beti ere bertako eta inportatutako produktuen arteko bereizkeriarik egin gabe:

“In the absence of full harmonization of language requirements applicable to information appearing on imported products, the Member States may adopt national measures requiring such information to be given in the language of the area in which the products are sold or in another language which may be easily understood by consumers in that area, provided that those national measures apply without distinction to all national and imported products and are proportionate to the objective of consumer protection which they pursue”.

Badirudi, beraz, harmonizatu gabeko kasuetan estatu bakoitzaren esku geratzen dela egokitzen jotzen den hizkuntza betekizuna ezartzea.

- 366/98 kasua: Geffroy eta Casino France.

Epai hau 1996. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2000ko irailaren 12an eman zuen Auzitegiak, Lyongo Apelazio Epaitegiak (*Cour d'appel de Lyon*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Yannick Geffroy-ren eta Casino France SNCren aurkako zigor prozeduran sortutako galdera bat dela-eta.

1996an Casino kateak Clermont Ferrand hirian daukan Géant hipermerkatu batean egindako inspektzio batean salatu zuten zenbait edariren etiketak (tartean 432 Coca Cola botila) ez zeudela frantsesez, eta sagardoaren izenarekin saltzen ziren edari batzuei ez zegokiela sagardo izendapena. Casino katearen izenean Geffroy jaunak argudiatu zuen, besteak beste, Coca Cola botilak Erresuma Batuan erosiak zirela eta, aski produktu ezaguna denez, eroslea baduela produktuaren berri. Bestalde, aitortu zuen beste produktuak ez zirela sagardoa eta horregatik zeudela garagardoaren apalean. Geffroy jaunak isuna jaso zuen eta errekurtsioa jarri zuen Lyongo Apelazio Epaitegiaren aurrean.

Lyongo epaitegi horrek epaitu aurreko arazoa aurkeztu zion EBJAri, Frantziako Kontsumitzaileen Kodeak exijitzen duena (elikagaien etiketak eroslearentzat nahasgarriak ez izatea eta legez jaso behar diren zehaztapenak frantsesez idatzita egotea) Europako legeriarekin (berriz ere Tratatuaren 30. artikuluekin eta 79/112 Zuzentarauarekin) bateragarria ote den erabakitzeke.

Lehen zatiari dagokionez, Auzitegiari bidezkoa iruditzen zaio estatu kideen legerietan elikagaien kasuan etiketa ez nahasgarriak idazteko arauak indarrean jartzea. Bigarren zatiari dagokionez, EBJAren epaiak ez du inolako ekarpen berririk egiten, eta ia hitzez hitz berritzen du ordura arte emandako jurisprudentzia, hau da, debekatu egiten du etiketetan hizkuntza

jakin bat preskribitzea, baldin eta ez bada erraz uler daitekeen beste hizkuntza batean emateko aukera ematen:

“Article 30 of the Treaty and Article 14 of Directive 79/112 preclude a national provision from requiring the use of a specific language for the labelling of foodstuffs, without allowing for the possibility for another language easily understood by purchasers to be used or for the purchaser to be informed by other means”.

- 169/99 kasua: Schwarzkopf kosmetiko enpresa.

Epai hau 1999. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2001eko irailaren 13an eman zuen Auzitegiak, Alemaniako Auzitegi Gorenak (*Bundesgerichtshof*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Schwarzkopf kosmetiko enpresaren eta Bidegabeko Konkurrentziaren aurkako Bulegoaren (*Zentrale zur Bekämpfung unlauteren Wettbewerbs, ZBUW*) arteko prozeduran sortutako galdera bat dela-eta.

Schwarzkopf kosmetika enpresak ile-apaintzaile profesionalentzat soilik den tindagai bat du merkatuan, bi sustantzia arriskutsu dituena. Horri buruzko oharrak bederatziz hizkuntzatan daude jasota barruko argibide orrian, baina paketeen eta ontzian, erabilera komertzialerako dela abisatzeaz gain, barruko orria irakurtzeko besterik ez da esaten. ZBUWren ustez, ordea, oharrak osorik azaldu behar dira, baita paketeen eta ontzian ere, eta auzitara eraman zuen Schwarzkopf konpainia. Enpresak praktikan ezinezkoa zela argudiatu zuen oharrak osorik jartzea, eta auzi eta errekurtsoen ondoren etorri zen Alemaniako Auzitegi Gorenaren galdera, Alemaniako legeria eta 76/768 Zuzentarauak dioena nola uztartu erabakitzeko.

Zuzentarau horrek kosmetikako produktuen merkaturatzea arautzen du, eta sentiberatasun berezia erakusten du osasun publikoa arriskuan jar dezaketen produktuak saltzeko baldintzekin. Horretan oinarrituta eman zuen epaia EBJAk eta oharra osorik jartzera behartu zuen, nahiz laburtzapenak onartu:

“It is not impossible for practical reasons (...) to set out the compulsory warnings in full on the container and packaging of a cosmetic product in the language or language prescribed in the Member State in which it is to be marketed, where the producer or distributor wishes to label the product in nine languages, including eight official languages of the Community, for economic considerations and in order to facilitate the movement of the product within the Community, and this entails abbreviating those warnings on the container and packaging”.

Aurreko epai batean ere azaldua zuen EBJAk nolabaiteko sentiberatasun berezia osasun publikoarekin zerikusia duten gaietan. Hala zioen 33/97 kasuko epairen aurreko arrazoiketan: *“for certain categories of product, Community directives require the national language or languages to be used in order to enhance consumer or public health protection”*. Oraingoan ere hizkuntza bat preskribitzea onargarria iruditzen zaio, gaizkiulertuengatik osasun publikoa arriskuan egon litekeelakoan.

Bestalde, epaian EBko hizkuntza ofizialak aipatzen diren arren (arabiera da kasu honetako bederatzigarrena), epaiaren arrazoiketa irakurrita garbi geratzen da irizpidea zabalagoa dela: *“They [estatu kideek] may, however, require that the particulars provided for in Article 6(1)(b), (c) and (d) be expressed at least in their own national or official language or languages”*.

Hasierako epaiak (PIAGEME I eta II) oso garbiak izan ziren: produktua merkaturatzen den estatuaren hizkuntzaren/hizkuntzen kaltetan, aski da etiketatako testuak erraz ulertzeko moduko hizkuntza batean ematea. Hala ere, ez da zehazten nola interpretatu behar den erraz ulertze hori, eta uste izatekoa da kasu bakoitzean interpretatu beharreko kontua dela. Gure kasuan, euskaldun guztiek gaztelaniaz edo frantsesez ere badakitenez, ez da oso susmabera izan behar erdarazko testuak ulergarritzat joko lituzketela pentsatzeko, batez ere kontuan izanda EBJArentzat (PIAGEME II) Tratatuaren 128. artikulua (estatuen eta eskualdeen kultur aniztasuna babesten duenak) ezin duela zuzentarauak ezarritako irizpidea (erraz ulertzeko hizkuntza) aldatu.

Nolanahi ere, hasierako epaietan emandako irizpidea pixkanaka zehaztuz eta finduz joan da Auzitegia, ñabardura berriak txertatuz. Goerres kasuan hizkuntza bat preskribitzen duen legeria onartzera iristen da, baldin eta ohiko alternatibari ere bidea uzten bazaio. Colim-Bigg’s kasuan beste pauso bat ematen du, eta harmonizatu gabeko arloetan ere hizkuntza jakin bat ezartzeko aukera ez du baztertzen (kasu honetan estatuen esku geratzen da hizkuntzaren auzia arautzea, eta estatuen esku dagoenez EBJAk ez du printzipioz estatu hizkuntzetara mugatzen). Azkenik, Colim-Bigg’s eta Schwarzkopf kasuetan trataera berezia ematen zaie osasun publikoa arriskuan jar dezaketen salgaiei, eta kasu horietan ere onartu egiten du Auzitegiak dagokion estatuko hizkuntza ofiziala(k) erabili beharra.

Europa mailako auziekin zerikusirik ez badu ere, ez nuke aipatu gabe utzi nahi EAEn orain dela urte batzuk onartu zen 6/2003 Legea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutua

jasotzen duena, eta horien hizkuntza-eskubideak jasotzen dituen. Lege horretan ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea onartzen da (37. artikulua), eta etiketen kasuan ere, ondasun eta zerbitzuen inguruan kontsumitzaile eta erabiltzaileei banatzen zaien informazioa (etiketa, ontzi eta jarraibide-inprimakiak barne) euskaraz nahiz gaztelaniaz eman ahal izango dela ere jasotzen da (41. artikulua).

Zenbait eskubide arautzen badira ere, legeak eragozpen larriak ditu (Behatokia, 2005), besteak beste, aplikazioa progresiboa izatea eta arau-hausteei aurre egiteko modurik ez zehaztea eta, denetan mugatzaileena, legearen aplikazioa zehaztuko duen arautegia oraindik onartu ez izanarena. Agirreazkuenagaren hitzak erabiliz, ikuspegi formaletik aurrerapena dagoen arren, ez dirudi ikuspegi materialetik horrenbestearainokoa denik. Egile honen ustez, arautegi ezak dakarren zulo juridikoa betetzeko irtenbidea udal ordenantzak garatzea litzateke (Agirreazkuenaga, 2005: 17), horrek dituen muga guztiakin.

3.2 Hizkuntza eskakizunak

3.2.1 Irakaskuntzan

- 379/87 kasua: Groener irakaslea.

Epai honen sorburua 1987an Irlandako Auzitegi Gorenak (*High Court*) egindako epaitu aurreko galdera bat da, Anita Groener eta Irlandako Hezkuntza Ministerioaren arteko auzia dela-eta, irakaskuntza publikoan arte irakasle gisa jarduteko gaelikoaren ezagutza eskatzeak langileen mugimendu askatasuna mugatu zezakeelakoan Groener andreak hasitako prozedura batean sortutako zalantza bat argitzeko.

Irlandan indarrean dagoen legeriak xedatzen du hezkuntzako zenbait alorretan (artearen irakaskuntza horien artean) egun osoko lanpostuetarako izendapen finkoetan *Ceard-Teastas Gaelgige* ziurtagiria edo baliokideren bat eskatuko dela, beti ere irlandar naziotasuna ez dutenak salbuetsiz, baldin eta lanpostu horretarako beste hautagai kualifikaturik ez balego.

Groener andreak ordu batzuetarako kontratua zuen Dublingo ikastetxe batean, eta egun osoko lanpostu finkorako aurkeztu zenean, ez zuen salbuetsia izatea lortu, bazeudelako hizkuntzaren baldintza betetzen zuten beste hautagai batzuk ere. Gaelikoa ikasteko lau asteko ikastaro bat

egin ondoren ez zuen proba gainditzea lortu, eta ondorioz, ez zuen lanpostuaren jabe egitea lortu.

Dublingo *High Court*ak egindako eskabidean 1612/68 Arautegiaren 3. artikulua dioena argitzea eskatzen zen, hau da, estatu bateko bi hizkuntza ofizialetako baten ezagutza eskatzeak (kasu honetan Irlandatik kanpo erabat ezezaguna den hizkuntza bat) gainerako estatu kideetako herritarrak baztertzeko helburua duela uler ote daitekeen. Kontuan izan behar da, gainera, artearen irakaskuntza oso-osorik ingelesez ematen dela, lanbide hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasgai gehienekin gertatzen den bezala, eta, beraz, gaelikoz jakitea ez litzatekeela ezinbestekoa izango arte klaseak behar bezala emateko.

Badirudi, orduan, egoerak ez lukeela inola ere justifikatuko hizkuntza eskakizuna, ez behintzat, 1612/68 Arautegiko 3. artikulua dioen bezala, bete beharreko lanpostuaren berezko izaeragatik (“*by reason of the nature of the post to be filled*”). Baina puntu honetan EBJAk Irlandako hizkuntza politikaren zilegitasunari heltzen dio eskakizunaren egokitasuna babesteko. Izan ere, Irlandako Konstituzioaren arabera, gaelikoa lehen hizkuntza ofiziala da eta Irlandako gobernuak hizkuntza horren erabilera hedatzeko politika bat darama aspalditik. Horregatik irakasten da lehen eta bigarren hezkuntzan, eta horregatik eskatzen zaie irakaskuntza publikoko irakasleei.

Europar Batasuneko Tratatuak ez dio inolako eragozpenik jartzen estatu kide baten hizkuntza defenditzeko eta bultzatzeko politikari, baina beti ere oinarritzko askatasunen bati kalterik egin gabe, kasu honetan langileen mugimendu askatasunari mugarik jarri gabe. Auzitegiarentzat hizkuntza sustatzeko neurriek helburuaren neurrikoak izan behar dute, gehiegikeriarik gabeak eta beste estatu kideetako herritarren aurkako diskriminaziorik gabeak. Baina hizkuntza politikarako irakaskuntzak daukan garrantzia ikusirik, eta irakasleek ikastetxeko bizitzan duten pisua eta ikasleengan duten eragina kontuan hartuta, arrazoizkoa iruditzen zaio lehen hizkuntza nazionalaren ezagutza mailaren bat eskatzea.

Gainera, lanpostuaren izaeragatik eska daitekeena da:

“It follows that the requirement imposed on teachers to have an adequate knowledge of such a language must, provided that the level of knowledge required is not disproportionate in relation to the objective pursued, be regarded as a condition corresponding to the knowledge required by reason of the nature of the post to be filled within the meaning of the last subparagraph of Article 3(1) of Regulation 1612/68”.

Aurrerago baztertu egiten du gaelikoa ezinbestean Irlandan bertan ikasi beharra, eta gainerako estatu kideetako herritarrek berriz ere lehen gainditu ez duten azterketara aurkezteko duten eskubidea azpimarratzen du Auzitegiak. Baina, baldintza horien barruan, hizkuntza eskakizunari buruz ematen duen epaia argia da, beti ere neurrigabekeriak eta diskriminazioak gaitzesten baditu ere:

“A permanent full-time post of lecturer in public vocational education institutions is a post of such nature as to justify the requirement of linguistic knowledge, within the meaning of the last subparagraph of Article 3(1) of Regulation No 1612/68 of the Council, provided that the linguistic requirement in question is imposed as part of a policy for the promotion of the national language which is, at the same time, the first official language and provided that that requirement is applied in a proportionate and non-discriminatory manner”.

Epai hau hizkuntza nazionalari (Irlandaren kasuan lehen hizkuntza nazionala) buruzkoa da, baina irizpidea beste edozein hizkuntza ofizialetara zabal daitekeela dirudi. Izan ere, hizkuntza eskakizuna onartzeko erabiltzen den argudio nagusia hizkuntza hori sustatzeko politika batek duen zilegitasuna da, eta irakasleen hizkuntzak ikastetxeko bizitzan duen eragina. Gainera, lehen hizkuntza ofiziala izatearena Irlandako berezitasun bat da, inola ere ez EBko legeriatik eratorritako baldintza bat. Beraz, badirudi euskararen kasuan ere berdin balioko lukeela Auzitegiaren irizpideak: EA Eren kasuan behintzat, atzerriko irakasle batek euskal hezkuntza sisteman lan egin nahi balu, nahiz eta ikasgaia espainieraz izan, hezkuntzan edozein irakasleri eskatzen zaion 1.HE egiaztatu beharko luke.

EBJAk jartzen duen baldintza bakarra, gero azalduko dugun Agonese kasuan bezala, egiaztagiri hori lortzeko baldintzena da. Gaelikoa ezinbestean Irlandan ikasi beharrak diskriminazio moduren bat ezartzen du gainerako estatu etako herritarrekiko, baina hizkuntza eskakizunaren zilegitasuna ez da zalantzan jartzen.

3.2.2 Osasun zerbitzuetan

- 424/97 kasua: Haim dentista.

Epai hau 1997. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2000ko uztailearen 4an eman zuen Auzitegiak, Düsseldorfeko epaitegi batek (*Landgericht Düsseldorf*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Salomone Haim jaunak Ipar Renaniako osasun sistema

publikoko dentisten elkargoarekin (*Kassenzahnärztliche Vereinigung Nordrhein*, KVN hemendik aurrera) izandako auzi bat dela-eta. Arazoa aski korapilatsua zen eta hiru izan ziren Düsseldorfeko epaitegiak argitu nahi izan zituenak, horien artean guri interesatzen zaigun alorreko bat: osasun sistema publikoan aritzeko hizkuntza eskakizuna ezartzeak sortutakoa.

Haim jaunak Istanbulgo Unibertsitatean lortu zuen dentista diploma eta hiri horretan aritu zen lanean 1980. urtera arte. 1981ean baimena lortu zuen Alemanian bere kontura dentista gisa jarduteko. 1982an Belgikako agintariek diplomaren baliokidetza onartu zuten eta Bruselan lan egin zuen osasun publikoan, eta tartean, 1991eko azarotik 1992ko abuztura, semeak Alemanian zuen hortz klinikan ere aritu zen.

1988an Haim jaunak eskaera egin zion KVNri dentista elkargo horretako kide izateko, eta horrela osasun publikoan jarduteko aukera izateko. Baina horretarako bi urteko prestakuntza aldi bat igaro beharra eskatzen zitzaion beste estatu kide batean lortutako diploma homologatu baten jabe ez zenari. KVNk ez zuen eskaera onartu, Haim jaunaren diploma, nahiz estatu kide batek onartua izan, ez zelako estatu kide batek emana.

Haim jaunak errekursoak aurkeztu zituen, eta azkenean kasuak EBJAn bukatu zuen (312/92 kasua). Auzitegiak Tratatuaren 52. artikuluari heldu zion, eta ebatzi zuen behin estatu kide batek diploma homologatu eta osasun publikoan lan egiteko aukera eman ondoren, eskubide berbera zuela beste edozein estatu kidean ere jarduteko. Azkenean, 1995an lortu zuen elkargoan onartua izatea, baina adinean aurrera zihoanez, ez zuen lan egiterik izan. Hala ere, Haim jaunak ez zuen etsi eta kalteordaina eskatu zuen 1988tik 1994ra Alemaniako osasun publikoan lanik ez egiteagatik galdu zuenagatik.

Auzi berri horrek ekarri zuen Düsseldorfeko epaitegiaren kontsulta, aski bihurria eta alderdi asko ukitzen dituen. Arazoetako bat zen estatu kide bateko zuzenbide publikoko erakunde batek EBko legeria hausten bazuen, ea erakunde hori ere, estatu kidearekin batera, erantzulea zen. Erantzuna baiezkoa izan zen, EBko legeriak ez zuela baztertzen zuzenbide publikoko erakunde bat ere erantzulea izatea EBko legeria urratzen zenean.

Baina guri interesatzen zaigun arazoa hizkuntza eskakizunarekin lotutakoa da. Düsseldorfeko epaitegiak egindako galderen artean honako hau zegoen: osasun publikoko dentista izendatzeko ea zilegi ote den lan egin behar duen estatu kideko hizkuntzaren ezagutza nahikoa eskatzea. Epaitegi horren ustez, eskakizun hori 78/686 Zuzentarauaren 3. artikulua eta Tratatuaren 52. artikulua aurkakoa izan liteke.

EBJAren erantzuna oso argigarria izan zen, ordura arteko jurisprudentzia bildu eta horrelako kasuetarako irizpide orokor bat ezarri zuelako:

“According to the Court’s case-law, national measures which restrict the exercise of fundamental freedoms guaranteed by the Treaty can be justified only if they fulfil four conditions: they must be applied in a non-discriminatory manner; they must be justified by overriding reasons based on the general interest; they must be suitable for securing the attainment of the objective which they pursue; and they must not go beyond what is necessary in order to attain that objective”.

Horra, beraz, erkidegoko zuzenbidean hain oinarritzkoa den langileen mugimendu askerako eskubidea nolabait muga dezakeen neurri bat justifikatzeko eman litezkeen arrazoiak: diskriminaziorik gabe aplikatzea, funtsezko interes orokor batek justifikatzea, helbururako egokiak izatea eta helburua lortzeko behar denaz haratago ez joatea.

Hizkuntzaren kasu zehatzera etorruta, Auzitegiarentzat garbi dago pazienteekin eta osasun agintariekin komunikatu ahal izatea interes orokorreko funtsezko arrazoa dela:

“the reliability of a dental practitioner’s communication with his patient and with administrative authorities and professional bodies constitutes an overriding reason of general interest such as to justify making the appointment as a dental practitioner under a social security scheme subject to language requirements”.

Gero epaiak, beti bezala, heinekotasun printzipioa gogorarazten du, eta berriro ere azpimarratzen du hizkuntza eskakizuna ezin izan daitekeela helburuak eskatzen duena baino zorrotzagoa. Hala ere, puntu horretan aipamen bitxi eta interesgarri bat ere egiten du:

“In this respect, it is in the interest of patients whose mother tongue is not the national language that there exist a certain number of dental practitioners who are also capable of communicating with such persons in their own language”.

Irizpidea ez da, beraz, estatu hizkuntzentzat soilik, eta gainera ez da mugatzen estatu hizkuntza izan gabe ere lurralde jakin batean ofizialak direnen hizkuntzen kasura ere. Ofizialak edo hizkuntza nazionalak izan gabe ere (Haim dentistaren kasuan turkiera zen hizkuntza hori), zerbitzua gaixoen ama hizkuntzan eman ahal izatea ere pazienteen interesekoa da.

Nolanahi ere, Auzitegiaren epaia oso garbia da auzi honetan:

“the competent authorities of a Member State may make the appointment, as a social security scheme dental practitioner, of a national of another Member State who is established in the first Member State and authorized to practice there but has none of the qualifications mentioned in Article 3 of Directive 78/686, conditional upon his having the linguistic knowledge necessary for the exercise of his profession in the Member State of establishment”.

Pentsa liteke eskakizuna estatu hizkuntzei bakarrik dagokiela, epaiak berak (59. puntuan) *“language of that State”* diolako, baina garbi dago irizpidea orokorragoa dela, pazienteekin eta osasun agintariekin komunikatzeko gaitasuna baita oinarrizko arrazoia, eta, esan bezala, EBkoak ez diren hizkuntzak ere kontuan hartzen direla.

Euskal Herriari begira oso epai interesgarria da, osasun zerbitzu publikoetan euskararen ezagutza maila jakin bat eskatzeari bidea irekitzen diolako, baita atzerritik etorritako profesionalen kasuan ere, gero eta zabalduago baitago, bertako sendagile eta gainerako teknikari erdaldunetz gain, EBko beste estatu batzuetatik etorritakoak kontratatze joera, EBJaren eragin-esparruarekin zerikusirik ez duten hegoamerikarrak ahaztu gabe. Gauza jakina da ez dela hori Osakidetzan eta Osasunbiden jarraitzen den praktika, baina komenigarria da jakitea EBJaren jurisprudenziak ez duela eragozpenik jartzen.

3.2.3 Lanbide elkargoetan

- 506/04 kasua: Wilson eta Luxenburgoko Abokatuen Elkargoa.

Epai hau 2004. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2006ko irailaren 19an eman zuen Auzitegiak, Luxenburgoko Administrazio Epategiak (*Cour administrative*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Graham J. Wilson britainiar abokatuak Luxenburgoko abokatuen elkargoarekin izandako auzi bat dela medio. Arazoak ertz asko zituen, eta lau kontsulta edo galdera egin behar izan zizkion Luxenburgoko Administrazio epategiak EBJari.

Wilson jauna Erresuma Batuko naziotasuna duen abokatu da, Ingalaterra eta Galesko abokatuen elkargoko kidea 1975az geroztik, eta Luxenburgon abokatu lanetan aritu izan dena 1994. urtetik aurrera. 2003. urtean, abokatuen elkargoak eskatuta, kasu baten entzunaldian parte hartu behar zuen, baina horretarako Luxenburgoko legelari baten laguntza eskatu zuen. Elkargoak ez zion onartu eta, gainera, jakinarazi zion, Luxenburgoko legeriak ezartzen dituen

hizkuntza eskakizunetan oinarrituta, ez zuela Luxenburgoko lanbide titulupean jarduteko abokatuen zerrendan onartuko, epaitegietaiko prozeduretan frantsesa, alemana eta luxenburgera erabiltzen baitira.

Elkargoaren ezezkoaren aurrean errekurtsioa aurkez zezakeela jakinarazi zion elkargoak, baina Wilson jaunak elkargoaren ezezkoa deuseztatzeko eskatu zuen. Horren aurrean Luxenburgoko Administrazio Epaitegiak horretarako eskumenik ez zuela erabaki zuen, baina Wilson jaunak erabaki horren aurrean ere beste apelazio bat aurkeztu zuen.

Horrek sortu zuen lege korapilo bihurria EBko legeriaren argitan askatzeko, Luxenburgoko Administrazio Epaitegiak lau galdera aurkeztu zizkion EBko Auzitegiari. Lehen biak apelazio prozedurari buruzkoak ziren, baina hirugarrena eta laugarrena bete-betean sartzen dira guri interesatzen zaigun esparruan:

“3. Are the competent authorities of a Member State authorised to make the right of a lawyer of [another] Member State to practise on a permanent basis the profession of lawyer under his home-country professional title in the areas of activity specified in Article 5 of Directive 98/5 subject to a requirement of proficiency in the languages of [the first] Member State?

4. In particular, may the competent authorities make the right to practise the profession subject to the condition that the lawyer sit an oral examination in all (or more than one) of the three main languages of the host Member State for the purpose of allowing the competent authorities to verify whether the lawyer is proficient in the three languages, and if so, what procedural guarantees, if any, are required?”.

Auzitegiak bi galderak batera aztertu zituen, eta horretarako 98/5 Zuzentaraua izan zuen oinarri. Zuzentarau horren asmoa elkargoetan erregistratzeko baldintzetan estatuen artean dauden arau desberdintasunekin amaitzea da. Zuzentarauaren 3. artikulua dioenez, beste estatu kide batean lan egin nahi duen abokatuak dagokion elkargoan erregistratzeko aski du jatorrizko estatuan antzeko elkargo batean erregistratu izanaren agiria aurkeztea. Hori da baldintza bakarra, eta ez dago beste inolako ezagutza probarik gainditu beharrik beste estatu batean legelari aritzeko.

Nolanahi ere, badira kontsumitzaileen babesa eta justizia administrazioaren eraginkortasuna bermatzen duten bestelako arauak ere. 98/5 Zuzentarauaren 4. artikulua bertako eta kanpoko abokatuen artean bereizi beharra ezartzen du, bezeroek alde zuzetik jakin dezaten beren konfiantza zeinen eskuetan uzten duten. Gainera, 5. artikulua baimena ematen die estatuei horrelako kasuetan kanpoko abokatuak bertako abokatu baten laguntza izan dezatela

exijitzeko. Aukera horrek, EBJAren ustez, konpentsatu egingo luke kanpoko abokatuak bertako hizkuntzetan izan dezakeen gaitasun eza.

EBko legeriaz aparte, abokatuen elkargoetan indarrean dauden lanbide kodeak ere aipagai ditu Auzitegiak. Europako Abokatuen Elkargoen Batasunak (CCBE) bere kodean agintzen du (eta kontrakoa zigorgarritzat jotzen) inork ez dezala bere gain hartu prestakuntza profesional ezagatik gaitasunik ez duen auzirik, eta adibidetzat jartzen du beharrezko hizkuntza ezagutzarik ez izatea, gaitasun hori ezinbestekoa baita bezeroekin, administrazioko arduradunekin eta bertako lanbide elkargoekin harremanak izateko, eta gutxieneko ezagutzarik ezean beste abokatu baten laguntza eskatzea ere ezinbestekotzat jotzen da.

Beraz, Auzitegiak araudian aski berme badagoela irizten dio, eta ez du zilegitzat jotzen beste estatu kide bateko lanbide elkargo batean erregistratzeko bertako hizkuntzaren (edo hizkuntzen) ezagutza ezartzen duen baldintzarik jartzea, eta ondorioz 98/5 Zuzentarauaren 3. artikulua horrela interpretatu behar dela ebazten du:

“the registration of a lawyer with the competent authority of a Member State other than the State where he obtained his qualification in order to practise there under his home-country professional title cannot be made subject to a prior examination of his proficiency in the languages of the host Member State”.

- 193/05 kasua: Luxenburgoko Dukerri Handia.

Epai hau 2005. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2006ko irailaren 19an eman zuen Auzitegiak, goian azaldutako 506/04 kasuarekin batera, punturik garrantzitsuenetan kasu horrekin duen antzekotasunak eraginda. Orain arte aztertutako kasuetan ez bezala, oraingo honetan Europako Erkidegoen Batzordea bera izan zen arazoa Auzitegiaren aurrean jarri zuena. Ez da, beraz, estatu kide bateko epaitegi batek aurkeztutako epaiketa aurrekok arazo bat, baizik eta zuzenean Europako Batzordeak Luxenburgoko Dukerri Handiaren aurka planteatutako auzia.

Europako Batzordeak kexu bat jaso zuen 2003an Europako abokatuak beren jatorrizko estatuarekin Luxenburgon jarduteko zituzten zailtasunak eta eragozpenak zirela eta. Hiru oztopo mota aipatzen zituzten legelariak: lehena, guri gehien interesatzen zaiguna, hizkuntza eskakizunari buruzkoa, Luxenburgoko lanbide elkargo batean erregistratu ahal izateko hizkuntza proba bat gainditu beharra ezartzen duena; bigarrena, Luxenburgoko erregistroan jarraitzeko jatorrizko estatuaren erregistro ziurtagiria urtero aurkeztera behartzen

duena; eta hirugarrena, Luxenburgoko enpresen izenean zerbitzuak eskaintzeko aukera debekatzen diena Europako gainerako abokatuei.

Auzitegiak eman zuen epaian hiru oztopoak gaitzesten ditu, baina lehena da guri dagokiguna. Batzordeak erabili zituen argudioen oinarrian 98/5 Zuzentarauaren 3. artikulua ageri zaigu berriz ere, honako ondorio hau ateratzeko: Europako legelari bat beste estatu kide batean erregistratzeko baldintzak administratiboak izan litezke, baina inola ere ez aurrez gainditu beharreko hizkuntza azterketa bat. Horretaz aparte, Batzordearen ustez jatorrizko estatuko tituluarekin beste estatu batean lan egin nahi duten abokatuei ezin zaizkie bertakoei eskatzen zaizkien betekizun berak eskatu, ezta hizkuntza eskakizun berak ere. Gainera, Europako abokatuek daramatzaten kasuek ez dute nahitaez estatu hartzaileko hizkuntzak ezagutzea eskatzen.

Luxenburgoko Dukerriaren iritziz, ordea, abokatu batek ezin du bere atzerritartasuna alegatu Luxenburgoko epaitegien aurrean bertakoa ez den hizkuntza batean jarduteko. Haim kasuari (424/97) aipamen eginez, bezeroekin, administrazioarekin eta lanbide elkargoekin harremanak izateko bertako hizkuntza ezagutu beharra zegoela argudiatu zuen, kontuan izanik, gainera, atzerriko legelariak Luxenburgon indarrean dauden legeez eman behar dutela aholkua, eta horretarako ezinbestekoa dela bertako hizkuntza ofizialak ezagutzea. Bi adibide aipatzeagatik, trafikoko istripuen ondorioz poliziak bidaltzen dituen zigor jakinarazpenak alemanez egiten direla baieztatu zuten, eta Luxenburgon indarrean dauden lanbide-jokaerari buruzko arauak frantsesez daudela.

Auzitegiak Europako Batzordeari arrazoi eman zion, eta arrazoibide horretan funtsean 506/04 kasuan erabilitako argudio berberak erabili zituen, hemen berriz ere errepikatzea merezi ez dutenak. Epaia oraingoan ere argia izan zen:

“By making registration with the competent national authorities subject to a prior language test for lawyers who have obtained their qualification in a Member State other than the Grand Duchy of Luxembourg and who wish to practise under their home-country professional title in the latter Member State, (...)the Grand Duchy of Luxembourg has failed to fulfil its obligations under Directive 98/5 of the European Parliament and of the Council of 16 February 1998 to facilitate practice of the profession of lawyer on a permanent basis in a Member State other than that in which the qualification was obtained”.

Lanbide elkargoen bi kasu hauetan ez da estatu hizkuntzaren alde egiten, mugikortasunaren printzipioa hizkuntza auzien gaineratik jartzen baita. Profesionalen mugimendu askearen printzipioa nagusitzen da, baina zenbait ñabardurarekin: batetik kontsumitzaileak jakinaren gainean jarri beharra azpimarratzen da; eta bestetik, abokatuen kode deontologikoan jasotakoa (beharrezko prestakuntzarik ezean kasurik ez hartzea) gogorarazten da.

Kontraesana dagoela dirudi hizkuntza eskakizunei buruzko orain arteko epaiekin alderatuz gero. Hemen ez dirudi hizkuntza eskakizunak besteetan duen indarririk duenik, eta hizkuntza maila jakin bat frogatzeko azterketak berariaz debekatzen dira. Inkoherentzia horren iturria aplikatzen den legeriak bilatu behar da. Hizkuntzen erabilera ongi arautuko duen legerik ezean, arlo bakoitzean indarrean dauden xedapenak dira EBJAk kontuan hartzen dituenak, eta hor nekez aurkituko dugu hizkuntzaren aldetik koherentziarik, ez baitziren horretarako sortu.

3.2.4 Finantza erakundeetan

- 281/98 kasua: Angonese eta Bolzanoko Aurrezki Kutxa.

Epai hau 1998. urtean hasitako prozedura bati dagokio eta 2000ko ekainaren 6an eman zuen Auzitegiak, Bolzanoko epaitegi batek (*Pretore di Bolzano*) aurkeztutako epaiketa aurreko arazo bati erantzuteko, Roman Angonese herritarrek Bolzano Aurrezki Kutxarekin (*Cassa di Risparmio di Bolzano*) izandako auzi bat dela-eta. Arazoaren muina lanpostu baten jabe egiteko eskatzen den elebitasun ziurtagiri bat izan zen.

Angonese jauna italiar naziotasuna duen herritarra zen, bizilekua Bolzanoko probintzian zuena eta ama hizkuntza alemana zuena. 1993. eta 1997. urteen artean Austrian egin zituen ikasketak, eta 1997ko abuztuan Bolzanoko Aurrezki Kutxak eskainitako lanpostu baterako eskaera egin zuen. Lanpostu horretarako baldintzetako bat B motako elebitasun ziurtagiriaren jabe izatea zen, alemanezko eta italierazko elebitasuna bermatzeko herri administrazioan erabiltzen den berbera. Aurrezki Kutxa zuzenbide pribatuko erakundea izan arren, lan konbenioan jasota dago eskakizun hori.

Ziurtagiria Bolzanoko herri administrazioak ematen du, probintzia horretan soilik egin daitekeen azterketa baten ondoren. Oso arrunta da Bolzanoko biztanleen artean ziurtagiri hori izatea eta, lanpostu baten jabe egiteko aukerak zabaltzen dituenek, edozeinen lan prestakuntzan ia ezinbestekotzat jotzen da.

Kontua da Angonese jauna, elebitasun ziurtagiri horren jabe izan ez arren, elebidun osoa zela. Lanposturako lehia hizkuntza gaitasuna frogatzeko bestelako egiaztagiri batzuk aurkeztu zituen: delineatzaile ikasketetan lortutako ingelesezko, eslovenierazko eta polonierazko ezagutza egiaztatzen duten agiriak, batetik; eta bestetik, bere lanbide esperientziaren barruan polonieratik italierara egin behar izan zituen itzulpenak. Hala eta guztiz ere, ez zen Bolzanoko Aurrezki Kutxako azterketetara onartua izan, behar zuen ziurtagiria ez zuelako. Gainera, ez zuen astirik izan lortzeko, lanpostuaren iragarkia atera zenetik eskabideak aurkezteko epea bukatzen zen egunera bi hilabete eskaseko denbora izan zenez, ezinezkoa delako denbora horretan agiria ateratzea, azterketa idatzitik ahozkoa gutxienez hilabeteko tartea izaten dela kontuan hartuta.

Angonese jaunak hizkuntza eskakizun hori baliogabetzea eskatzen zuen eta aukera galdu izanagatik kalte-ordaina eskatzen zion Bolzanoko Aurrezki Kutxari. Bolzanoko Epaitegiak EBko legeriaren aurkakoa izan zitekeela zioen, Bolzanoko biztanle ez diren herritarrak diskriminatzen zirelako, eta Tratatuaren 48. artikulua eta 1612/68 Arautegiko 3. eta 7. artikulua urratzen zituelakoan, epaiketa aurreko arazoa aurkeztu zuen. Beste aldetik, Italiako Gobernuak eta Bolzano Aurrezki Kutxak ziotenez, Angonese jauna jaiotzez Bolzanoko biztanlea izanik, arazoa artifiziale zen eta ez zuen EBko legeriarekin inolako loturarik.

Auzitegiak, ordea, kontrakoa iritzi zion, eta arazoak Europako Erkidegoko zuzenbidea bete-betean ukitzen zuela ebatzi zuen. Nolanahi ere, 1612/68 Arautegiko 3. eta 7. artikulua ez zirela urratzen erabaki zuen, eta Tratatuaren 48. artikuluan soilik oinarritu zuen epaia. Izan ere, arazoa da elebitasun ziurtagiria lortzeko aukera bakarra Bolzanoko probintzian egiten diren probetara aurkeztea dela, ez baitago beste inon agiri hori eskuratzetik. EBJAren hitzetan, estatu kide bakar bateko probintzia bakar batean lor daitekeen agiria baldin bada, probintzia horretatik kanpo bizi direnek oso aukera gutxi dute ziurtagiria lortzeko eta, horren ondorioz, lanpostuaren jabe egiteko. Horrek, Auzitegiaren ustez, desabantaila nabarmenean uzten ditu gainerako estatu kideetako herritarrak, eta ez horiek bakarrik, baita Italia bertako gainerako eskualdeetako herritarrak ere.

EBJAren iritziak, horrelako eskakizun bat, inolako baliokiderik ez duen ziurtagiri bat, onargarria izan liteke, baldin eta naziotasunarekin zerikusirik ez duen arrazoi objektiboetan oinarrituta balego eta berez zilegia den helburuaren neurrikoa balitz. Baina Auzitegiak berak lehendik ere erabakita dauka (gorago azaldu dugun 379/87 kasuan, Anita Groener-en auzian) herritarrak ez diskriminatze printzipioak erabat bazterten dituela estatu jakin batean soilik egiazta daitezkeen hizkuntza eskakizunak.

Beraz, oraingo kasuan ere Auzitegiak zilegitzat jotzen ditu lanpostu baterako hizkuntza baten maila jakin bat eskatzen duten agiriak, baina gaitzetsi egiten ditu, lortu nahi den helbururako neurritz kanpokoak direlako, estatu kide bakar bateko probintzia batean soilik lor daitezkeenak, Tratatuaren 48. artikulua argitan naziotasunean oinarritutako diskriminazioa dakartelako:

“Article 48 of the EC Treaty (now, after amendment, Article 39 EC) precludes an employer from requiring persons applying to take part in a recruitment competition to provide evidence of their linguistic knowledge exclusively by means of one particular diploma issued only in one particular province of a Member State”.

Epai interesgarria da, hizkuntza eskakizunen aldekoa delako, irakaskuntzan eta osasun zerbitzuetan emandakoen antzekoa. Eta interesgarria da, batez ere, EBJAk hizkuntza eskakizunak berdin tratatzen dituelako, herri administraziokoak edo sektore pribatukoak diren begiratu gabe, ez diskriminatzeko irizpidearen argitan ez baitu horrelako bereizketarik egin behar. Gure artean, hizkuntza eskakizunak indarrean dauden lurraldeetan, administrazioan bakarrik erabiltzen dira: administrazio orokorrean (Jaurlaritza, Aldundiak, udalak, erakunde autonomoak...), hezkuntza, osasun publikoan, Ertzaintzan... Epai honen argitan, berriz, ez dirudi EBJAren aldetik bederen eragozpenik egongo litzatekeenik enpresa pribatuetan ere indarrean jartzeko.

Baldintza bakarra Groener kasuan ikusi genuen bera da: hizkuntza ziurtagiri horiek kanpoan lortzeko aukerarik ez dagoenez, horrek arazoak ekar ditzake, beste estatuetakoko herritarrek aukera bera ez luketelako izango. Euskararen kasuan Etxepare institutuak zabal dezakeen bide berriak eta laster onartuko dela dirudien ziurtagirien baliokidetzak konpon dezakete arazo hori.

3.4 Auzibideak

Justiziaren alorreko prozeduretako hizkuntza dela-eta Auzitegiak bi epai eman ditu, biak ere zigor prozeduren alorrekoak.

- 137/84 kasua: Robert Mutsch.

Epaia 1985eko uztailaren 11koa da, 1984an hasitako prozedura bati amaiera ematen diona, Robert Mutsch-en aurkako zigor prozedura batean erabili behar zen hizkuntza dela-eta sortu zen auziari erantzuteko emandakoa. Auzitegiaren parte hartzearen oinarrian Liègeko Apelazio Auzitegiak (*Cour d'appel de Liège*) egindako epaiketa aurreko galdera edo kontsulta bat dago, Tratatuaren 220. artikulua interpretazioa argitzeko asmoz.

Arazoa Robert Mutschen aurkako zigor prozeduran sortu zen. Naziotasunez luxemburgotarra zen herritar horrek Belgikako Saint Vith-en zuen bizilekua, hizkuntzaz alemana den hiri batean. *In absentia* zigortua izan ondoren aurkeztu zuen apelazioan auzietan hizkuntzen erabilera arautzen duen legea erabili zuen argudiotzat, Belgikako lege horrek eskubidea ematen baitio aleman hiztunen udalerrri batean bizi den belgikar herritarrari Verviersko epaitegiaren aurrean prozedura guztiak alemanez egiteko.

Epaitegiak Mutsch jaunaren eskabidea ontzat hartu bazuen ere, fiskaltzak aurka egin zuen akusatuak Belgikako naziotasuna ez zuela argudiatuz. Egia zen Belgikako legeak eskubide hori Belgikako herritarrei soilik ematen diela, baina horrek zalantza sortu zuen Liègeko Apelazio Auzitegiaren baitan, Belgikako legea puntu horretan Europako legeriarekin kontraesanean egon zitekeelakoan, batez ere Tratatu 220. artikulua xedatzen duenarekin. Izan ere, artikulua horren helburua Europar Batasuneko herritar guztien eskubideen berdintasuna babestea da, estatu jakin bateko herritarrei aitortzen zaizkien berberak errespetatzea gainerako estatu kideetako kasuan ere. Kasu honetan Mutsch jaunak, aleman hiztuna izaki, luxemburgotar naziotasuna izan arren, Saint Vith aleman hiztunen udalerria denez gero, eskubidea izan behar zuen zigor prozedurak alemanez egin zitezkeen. Arazoa, beraz, Belgikako legearen eta Europar Batasunaren legeriaren arteko adostasun eza zen.

Italiako gobernuaren ordezkariak eragozpenak jarri zituen 220. artikulua alderdi interpretazioa saihesteko. Batetik, gutxiengo bat babesteko ofizialki hartutako neurriak gutxiengo horretako kideei soilik aplikatzekoak direla argudiatu zuen; bestetik, artikulua horrek ezin duela inolako eskubide edo betebeharririk sortu, estatu kideen arteko itunik gabe; eta azkenik, artikulua “abantaila sozialak” aipatzen dituenez, lan harreman bat izatea ezinbestekoa dela gaineratu zuen.

EBJAaren erantzunean 220. artikulua mugak aipatzen dira, ez baitu kasu honetan zuzenean aplikatu daitekeen araurik ematen eta estatu kideek elkarrekin negoziatu beharreko gai zerrenda bat definitu besterik ez baitu egiten. Nolanahi ere, baieztapen interesgarria egiten du hizkuntza eskubideen aitortzari dagokionez:

“In the context of a community based on the principles of free movement of persons and freedom of establishment the protection of the linguistic rights and privileges of individuals is of particular importance”.

Auzitegiak erantzuna ematerakoan Tratatuaren 48. artikuluari eta 1612/68 Arautegiari heldu zien. Langileen estatusari buruzkoa da 48. artikulua eta honako printzipio honetan dago oinarrituta: estatu kide bateko herritarrak lana dela-eta beste estatu kide batean aritzen direnean estatu horretako herritarrak bezalaxe tratatu behar dira. 1612/68 erregulazioak, berriz, honela dio:

“The right of freedom of movement, in order that may be exercised, by objective standards, in freedom and dignity, requires that equality of treatment shall be ensured in fact and in law in respect of all matters relating to the actual pursuit of activities as employed persons and to eligibility for housing, and also that obstacles to the mobility of workers shall be eliminated, in particular as regards the worker’s right to be joined by his family and the conditions for the integration of that family into the host country”.

EBJAren ustez, epaitegietako prozeduretan nor bere hizkuntza erabili ahal izateak, bertako langileen baldintza berberetan, garrantzi handia du langile etorkina eta haren familia hartu dituen gizartean integratzeko eta, gainera, langileen mugimendu askatasunaren helburua lortzeko.

Gauzak horrela, auzitegiak, 48. artikuluan eta 1612/68 Arautegian xedatutakoa aintzat hartuta, langileen mugimendu askatasunean oinarritzen du epaia. Ebazpenak dioenez, estatu kide bateko langilea beste estatu kide batean bizi denean eskubidea du bere aurkako zigor prozedurak auzitegi horretan normalean erabiltzen ez den hizkuntza batean egin daitezen, baldin eta estatu horretako langileek egoera berean eskubide hori baldin badute:

“... a worker who is a national of one member state and habitually resides in another member state be entitled to require that criminal proceedings against him take place in a language other than the language normally used in proceedings before the court which tries him, if workers who are nationals of the host member state have that right in the same circumstances”.

- 274/96 kasua: Bickel eta Franz.

Gai honi buruzko bigarren epaia 1998ko azaroaren 24koa da, 1996an hasitako prozedura bati dagokiona, Horst Otto Bickel eta Ulrich Franz-en aurkako zigor prozeduran erabili beharreko hizkuntzaz diharduena. Auzitegiaren epaiaren abiapuntua Bolzano auzitegi batek (*Pretura circondariale di Bolzano, sezione distaccata di Silandro*) egindako epaiketa aurreko kontsultan dago, Tratatuaren 6., 8. eta 59. artikuluek diotena argitu nahian.

Bickel jauna austriar naziotasuna zuen kamioi gidaria zen, eta alkoholaren eraginpean gidatu izana leporatzen zioten. Franz jauna, aldiz, bizilekua Alemanian zuen alemana eta, Trentino Alto eskualdean turista gisa zebilela, poliziaren miaketa batean legez kanpoko labana bat eduki izanaren karguari aurre egin behar ziona. Biek ere italierarik ez zekitela alegatu zuten, eta beren kontrako prozedurak alemanez egin zitezela eskatu zuten, Bolzanoko probintzian aleman hiztunen komunitatearen eskubideak babesteko dagoen arautegian oinarrituta.

Izan ere, Trentino Altoko eskualdean hizkuntza alemanak italierak duen estatus berbera du, eta Bolzanoko probintziako aleman hiztunek eskubidea dute administrazioarekin eta auzitegiekin dituzten harremanetan alemana erabiltzeko. Bolzanoko epaitegiaren galdera zen ea EBko legeriaren arabera beste estatu kide bateko herritarrak eskubidea duen haren kontrako prozeduretan beste hizkuntza bat erabil dadin, baldin eta estatu hartzaileko herritarrek baldintza berberetan eskubide hori badute.

Auzitegiak bi zatitan banatu zuen kontua: lehena, auzi honetako gaia Tratatuaren aplikazio eremuan sartzen zen ala ez, eta beraz 6. artikulua aplikagarria zen ala ez; eta bigarrena, ea artikulua horrek erabat baztertzen zituen toki jakin bateko biztanleei auzietan hizkuntza eskubide bat aitortu arren toki horretan bizi edo bidaian dabiltzan beste estatu kideetako herritarrei eskubide hori bera ukatzen dieten arauak.

Lehen zatian dagokionez, auzitegiak garbi dio Tratatuaren 59. artikulua estatu kide guztietako herritarrentzat balio duela beste estatu kide bat bisitatzen dutenean, dela bertan lan egiteko, dela han zerbitzu jakin batzuk jasotzeko, eta beraz, Bickel jaunaren eta Franz jaunaren kasuak biak bete-betean sartzen direla EBko legeriak diotenaren aplikazio eremuan, baita zigor prozeduretako hizkuntza dela-eta sor daitezkeen arazoetan ere. Gainera, EBko legeriak mugak jar diezazkioke berez estatuen eskumenak diren araei, diskriminazioa saihesteko eta tratu berdintasuna bermatzeko.

Bigarren zatian Italiako gobernuaren alegazioei egiten die aurre. Italiako gobernuaren iritziz, legeak bi baldintza ezartzen ditu Bolzanoko auzitegian prozedura alemanez egiteko: bizilekua Bolzanoko probintzian izatea eta aleman hiztunen komunitateko kide izatea. Beraz,

gutxiengo baten hizkuntza babesteko eskubidea ezin liteke gutxiengo horretako kide ez diren atzerritarren kasuan aplikatu.

Auzitegiaren jarrera garbia da puntu honetan: beste estatu kide batzuetako herritar aleman hiztunak Bolzanoko probintzian dabiltzanean edo bizilekua han dutenean desabantailan daude bertan bizi diren herritar aleman hiztunen aldean. Beraz, Italiako araua puntu honetan bertako biztanleentzat soilik baldin bada aplikagarria, araua bera da gaitzesgarria eta EBko legeriaren aurkakoa, Bolzanoko herritarrei abantaila bat ematen dielako EBko gainerako estatu kideetako herritarrekin alderatuta.

Epaiak, hortaz, horrelako arautegiak baztertzeko ditu:

“Article 6 of the Treaty precludes national rules which, in respect of a particular language other than the principal language of the Member State concerned, confer on citizens whose language is that particular language and who are resident in a defined area the right to require that criminal proceedings be conducted in that language, without conferring the same right on nationals of other Member States travelling or staying in that area, whose language is the same”.

Epai hauek gurean izan dezaketen garrantzia oso mugatua da, Espainiako eta Frantziako estatuak duten justizia sistemaren ondorioz. Euskal Herrian, arlo publikoan, justizia izango da seguruenik hizkuntza normalizazioan oztoporik handienak jartzen dituen, prozedura hizkuntza beti gaztelania edo frantsesa baita. Beste kontu bat da herritarrek euskaraz deklaratzeko duten eskubidea, baina horretan ere, onartzen den kasuetan, ia beti itzultzaile baten laguntza ezinbestekoa izaten da.

Egoera honetan, EBJAren epaiak gauza bat behintzat bermatuko lukete: euskara ofiziala ez den lurraldeetako euskaldunek eskubidea izango lukete ofiziala den lurraldean justiziaren aurrean euskaraz egiteko, bestela diskriminazio garbia litzatekeelako.

Bada beste egoera bat ere bitxia gertatzen dena, euskara ofiziala ez den estatu batean gertatzen delako. Frantziako justiziaren aurrean deklaratzeko duten euskaldunek eskubidea dute, Espainiako naziotasuna badute, euskaraz deklaratzeko eta itzulpen zerbitzua erabiltzeko; frantziar naziotasuna baldin badute, ordea, frantsesez deklaratzera behartuta daude. Egoera hau berez ulertzen zaila izateaz gain, EBJAren epaien aurkakoa dela ere esan liteke.

4. ONDORIOAK

1.- Europar Batasunaren ageriko hizkuntza politika (hizkuntzei buruzko arau esplizituak) ez da erkidegoaren lehen mailako zuzenbidean jaso. Hasieran Erromako Tratatuak ez zuen hizkuntzei buruzko aipamenik egiten, eta gerora etorri diren tratatuek eta erreformek ere lehen mailako zuzenbidetik atera dute gaia (1/1958 Arautegia...). Zuzenbide eratorrirako utzi da nahita, eta beti ere estatuen aho batezko adostasunaren mendean.

2.- Oinarrizko hizkuntza araudi horrek estatuen hizkuntzak (estatu osoan ofizial direnak) hartzen ditu kontuan. Erabiltzen den izendapena gorabehera (tratu hizkuntza, hizkuntza ofizial, lan hizkuntza) estatu hizkuntzak dira Europako erakundeek herritarrekiko harremanetan erabiliko dituztenak eta beren erabakiak argitaratzeko erabiliko dituztenak. Hala ere, erakunde eta organismoen barne bizitzan eta eguneroko lanean bi edo hiru hizkuntza nagusitzen dira.

3.- Ageriko hizkuntza politika horren ondoan, badago beste bat ere, berariaz jarritako helburuen zerbitzuan egon beharrean, zenbait sektoretarako onartutako zuzenbide eratorriaren ondorioa edo emaitza dena. Beste esparru batzuetako arauak erabakitzen dutenez (salgaien mugimendu askea, pertsonen eta langileen mugimendu askea, enpresak eta profesionalak kokatzeko askatasuna...), oso lausoa da eta kontraesanez bete. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia hizkuntza politika inplizitu horretan kokatzen da.

4.- Etiketen testuei buruzko jurisprudentzian nahikotzat jotzen da erraz ulertzeko moduko hizkuntza batean ematea, nahi ez den garbi geratzen hori nola interpretatu behar den. Hala ere, gai honetan emandako epaiek salbuespen eta ñabardura ugari ekarri dizkiote printzipio horri, estatu bakoitzak bere hizkuntza defenditzeko bidea irekitzen dutenak. Patenteen kasuan estatuen hizkuntzen alde egiten du nabarmen, baina, bai batean bai bestean, beti ere estatu hizkuntzak bakarrik hartzen dira kontuan.

5.- Hizkuntza eskakizunen alorrean, berriz, zenbait lanbidetan (irakaskuntzan, osasun publikoan, finantza erakundeetan) bertako hizkuntzaren ezagutza ziurtagiri baten bidez frogatzearen aldekoa da Auzitegia. Hori justifikatzeko era guztietako argudioak erabiltzen dira, hala nola, hizkuntzaren sustapena interes orokorreko helburutzat hartzea edo bezeroekin eta agintariekin komunikatzeko gaitasuna. Beraz, estatu hizkuntza ez diren kasuetan ere aplikagarria dela ulertu behar da (kasuren batean baita EBko hizkuntza ez denean ere).

Gainera, EBJAk ez du puntu honetan herri administrazioaren eta enpresa pribatuen arteko bereizketarik egiten. Salbuespena, lanbide elkargoetako arautegia da, hor ez baita hizkuntza eskakizuna beharrezko ikusten.

6.- Justiziako prozedurei dagokienez, kanpokoei bertako herritarrek dituzten eskubide berberak aitortu behar zaizkienez, ontzat ematen da kanpokoek ere hizkuntza eskubide berberak izatea. Irizpide hori gurera ekartzeko oztopo nagusia ez dago Europako legerian, Frantziako eta Espainiako estatuen barneko arauetan baizik, justiziako prozedurak beti erdaraz gauzatzen baitira.

7.- Oro har, gurea bezalako hizkuntzei dagokienez, oso nabarmenak dira EBren mugak eta gabeziak, bai ageriko politika ukatzailean, bai kontraesanez betetako politika inplizitu lausoan. Hala ere, ez dira baztertzekoak zenbait alorretan (bereziki hizkuntza eskakizunetan) zabaltzen dituen aukerak. Hizkuntzari buruzko lege-esparru orokorra aldatzea askoz zailagoa da, eta ez dirudi tratatu berrirako negoziazioek ezer probetxuzkorik ekarriko dutenik gutxiengoan edo eremu urriko hizkuntzen multzoan sailkatuta geratu diren hizkuntzentzat.

5. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, Iñaki (2005). Euskararen ofizialtasuna: EAEko kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutuaren aplikazio juridikoa. Hizkuntza normalizazioa merkataritzan eta zerbitzugintzan jardunaldiak. Oñati.
- AGIRREAZKUENAGA, Iñaki; IRIONDO ARANA, Xabier (1994). Europar erakundeen jarrera hizkuntza gutxietuekiko. Revista Vasca de Administración Pública, 39. zenbakia, 153-164 or.
- CORRETJA i TORRENS, Mercè (1995). L'acció europea per a la protecció dels drets lingüístics. Generalitat de Catalunya.
- FABEIRO HIDALGO, Patricia (2005). Un estudio jurídico del régimen lingüístico de las instituciones de la Unión Europea. Revista de Lengua i Dret, 44. zenbakia, 49-99 or.
- HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2005). Europako Itun Konstituzionalaren azterketa hizkuntza eskubideen ikuspegitik. 6. txosten berezitua.
- HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2007). Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak Euskal Herrian. 9. txosten berezitua.
- IRIONDO ARANA, Xabier (2000). Hizkuntza eskubideen babes juridikzionala nazioarteko eta Komunitateko ordenamenduetan. Eleria, 5. zenbakia, 15-21 or.
- PONS PARERA, Eva (2007). El català a Europa. Observatori de la llengua catalana.
- SIGUAN, Miquel (2005). La Europa de las lenguas. 2. edizioa. Alianza editorial.
- SIGUAN, Miquel (2004). La política lingüística de la Unión Europea. Documento de trabajo 39/2004. Real Instituto Elcano.
- SIGUAN, Miquel (1996). La Europa de las lenguas. 1. edizioa. Alianza editorial.
- URRUTIA LIBARONA, Iñigo (2006). Derecho, lengua y derechos lingüísticos: el reto de su regulación e implementación. Revista Vasca de Administración Pública, 76. zenbakia, 257-268 or.